

*Bi maratoilari aurrez aurre*

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1992ko urriak 23

167. zenb.

Auzoak zer?

**Meatzerreka**

Elkarrizketa

**Eneko**

**Landaburu**

Down sindromedunak  
igerilekuan

**Arlo guztietan  
murgildurik**





## Zeleta

**Z**elaieta (Musakola)  
Zeleta izenaz  
ezaunaue dana.


Gaur egun Sabin Garai,  
bertako semie, eta Frantzis-  
ka Ibabe Udelako Lio-  
rrakuen bizilekue.

Hiru seme-alaba ditue:  
Mari Lurdes, Josu eta  
Jaione.

Bizkaireko bide barrixe  
dala ta urtiaz batera galduko  
dan etxie. Sabine eta  
Frantziskak baserrixo izan  
daue euren bizibide. Artue  
eta babilendako lur onak  
izen ei die honeik.

Gaur egun ikusten dan  
baserrixo Sabinen aitte-  
jaunek trenbideginen  
irabazitako diruekin  
erositako etxie da. 1930ien  
Oñetiko Lizaur arkitektuek  
zuzendutako konponketa  
sakonak in jakon.

Sabinen gomutan dauen



kontu zaharrenetarikuen  
artien trena lelengoko aldiz  
pasau zanakue da, makinie  
sosegus sosegus oien  
aurrien eleuntz arrama

haundi bat eroiela.



## BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

### Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkun berreziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE


LORATEGI  
taberna

Iturriotz, 7  
Tfnoa: 79 04 67  
ARRASATE

Memesa  
79 42 22

ARRASATE  
PRESS  
HARPIDETZAK

77 05 65



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Elkarri ondo datorkiona idazleari beti ez

(Edo nola Durangoko pantomima ehortzi beharko litzatekeen)

**E**z da ohizkoa nik neure lan propioak leitzea, sarri, Yon Etxaide parafraseatuz, berriz irakurriz gero nire izerdiaren frutua abortu higuigarri bat iruditzen baitzait. Halaere, duela pare bat urte Zeruko Argia deritzon astekari zentsurazaleak eritzi artikulu bat eskatu zidalarik, liburugintzaz igorri nizkien laupabost hitz, azkenak printzipioz, hiru besterik argitara eman ez zirela, juxtu azpimarratu egin nuena desagertaraziz. Eta ez dakit zergatik, ostera heldu zait eskuotara orduan idatzitakoa, hoberen oroitzen ditudan berbak kendu egin zituztela jakingo ez banu bezala edo.

Zenbaitek, orduan bezala gaur ere, eta hau da kontua, Euskal Herrian gehiegi publikatzen dela uste du, kalitatea gehiago zaindu beharko litzatekeela, gauza txar asko argitaratzen dela, finean. Eta egia da gauza orijinal gutxi idazten dugula, idazle injenuoz inguratuta gaudela... et cetera. Baina hau irakurleak esan beharko du eta inolaz ere ez protekzionismoaren bila ari diren *kultureta* horiek, zinismoan

URU AZOKA



eroriko ez bagara. Besteak beste, argialetxe horiek hainbeste publikatu ezean baliabideak murriztuta ikusiko litzuketelako. Argialetxeek aurrera egin behar dute, baina arriskatuta, jakina, eta ez egun arte izan duten erosotasunarekin.

Literatura gozatzeko produktu bilakatu beharra daukagu, liburuak kontsumitu egin behar dira eta industria sortu horren inguruan. Euskaraz idatzitako liburuak ezin du tonto batzuen sinbolo izaten jarraitu, ezta *club* pribatu baten justifikazio.

Liburuak irakurtzeko dira eta zoritxarrez ez da hau gure erredua; subentzioei esker, Euskal Herri honetan, *larregi barik dena egun berean argitaratzen delako*, politika oker eta gaizto baten ondorioz, lan bikain askoren kaltetan gauza onak idatzi izan dituzten

zenbait idazlek azken urteotan eskeinitako *basurak* gorai-patuz; subentzioei esker Zalbaltzenek interesatzen ez zaizkion liburuak sekuestratu egiten dituelako; subentzioei esker Euskal Idazleek bidaia ajentzia muntatu dituelako...

Zoritxarrez, ez da hau gure erredua. Eritzi honek ez du Kultura eta Turismo Sailaren laguntzarik jaso. Eta gainera, normalean idazten ez dudanez gero, ez dut zeruko argirik espero zer irakurri behar dudan jakiteko.

JON IÑAKI LASA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Arantzazu Loidi. Kazetariak: Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. Publizitatea: Kepa Oliden (77 06 90). Administrazioa: Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). Maketazioa: Golo Arana. Erredakzio-kontseilua: Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Eukeri Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsos eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. Banaketa arduraduna: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatuta. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).


ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Arantzazu





# ZENBAKI

Aholkularitza

**Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak**

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 12 39



## ITURRIOTZ

**taberna  
Girorik  
jatorrena!**

Tfnoa: 79 16 04



**Alkoholarekin arazoak  
dauzkazu?**

**Agian,  
"Alkoholiko  
Anonimoek" lagundu  
ahal dizute!!**

**Alkoholiko  
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

.....

## AED ez dago autodetermina- zioaren alde ez kontra

**A**rrasate Euskaldun Dezaguneko Zuzendaritza Batzordeak honako hau adierazi nahi du:

Inoiz ez dugula ez hartu ez adierazi autodeterminazioaren aldeko edo kontrako jarrerarik, gure elkartean 856 bazkide izanik, 856 eretxi ezberdin daudelako gai horrekiko. Garbi utzi nahi dugu bestalde sekula ez dugula euskalgintzatik kanporako gaiekiko erabakirik hartu eta beraz gezurtatu egin nahi dugu, joan zen urriaren 17an, larunbata, EGIN egunkarian zerrendatuak zetozen Bilbon Autodeterminazioaren aldeko manifestaziorako Euskal Herriko hainbat erakunde zein norbanakoen artean gure izena azaldu izana.

Hau horrela izanik, eskertuko genizuke karta hau argitaratuko bazenu zure egunkarian, inon inork, lekuz kanpoko interpretaziorik egin ez dezan.

**AEDko Zuzendaritza  
Batzordea**

.....

## Zabaldutako ateak euskarari

**I**epa mondrautarrok! San Frantzisko Xabier ikastolako REM-eko ikasleak ordezkatzuz ari gaitzaizkizue eskutitz hau idazten. Gutun honen arrazoia, "Ekin Euskarari" kanpainan parte hartzea eta horrelaxe euskarari bultzakada ematea da.

Badirudi askotan ez gara konturatzen euskara krisi larri batetan murgildurik aurkitzen dela.

Guztion laguntza eskertuko genizuke gure eskutitz hau alperrikakoa izan ez dadin; beraz puntu batzutan esan beharrekoak aldarrikatuko ditugu:

- Euskara "normalizatu" ez izatearen errudunak guztiok gara: erdaldunak euskaraz ikasten ez dutelako, baina, eta batez ere, guk, euskal-

dunok, euskaraz hitzegiten ez dugulako.

- Euskaldun sentitzen bazara eta zure hizkuntzaz harro bazaude, "Ekin Euskarari".

- Patxi "Caudillo de España"ren garaietan, badirudi, nahiz eta debekatua egon, gaur egun baino gehiago mintzatzen zela.

- Arrasatear guztiok euskararen suzperze honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Euskaraz dakixenak indaixela eta ez dakixenak ikastera anima daitezela.

Agur eta hurrongo arte mondrautarrok.

**San Frantzisko Xabier  
ikastolako REM-eko  
ikasle eta irakasleak**



## Karmen Elorza Bergaretxe

ARRASATE PRESSEKO Rosa Mondragon lankidearen ama, asteazkenean hil zen Gasteizen 55 urte zituela.

Gure doluminak familiari.  
ARKO (Arrasate Komunikabideak)

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**ARRASATE  
PRESS  
HARPIDETZAK**



**77 05 65**



# Gustatu zaizkizu azoka plazako berrikuntzak?



**Casimiro Fernandez**  
Fruta saltzailea  
(28 urte)

Postu batzuk ondo jarri dituzte, baina beste batzuk ez, hortaz ez gaude oso konforme. Hobetzeko beharra zegoen, baina ez dute oso ondo jarri.



**Dorleta Altuna**  
Fruta saltzailea  
(32 urte)

Apalak oso altuak dira eta horregatik ez gaude zeharo konforme, baina gainerakoan. Uste dut jendea galduta bezala dabilela, apalek ez dute uzten ingurua ikusten eta.



**Josu Gonzalez**  
Arrautza saltzailea  
(29 urte)

Ondo gelditu da, kurioso. Nire postuan ia ez da diferentziarik igarten, baina beste batzuetan bai. Bezeroak ere gustorago daude.



**Ines Mari Ojanguren**  
Berdura saltzailea  
(51 urte)

Hemen ez da gehiegi igarri, garbiago dago, hobeto, hori bai. Askoz ere txukunago dago, baina hemen ez dago diferentzia handirik, garbitu egin dute, zuritu, pintatu... hortxe dago diferentzia.



**Juan Luis Azkarate**  
El Correo-ko  
berriematea (27 urte)

Ez naiz sarritan etortzen, baina uste dut hobeto dagoela. Hobekuntzak beharrezkoak ziren, lehen nahiko txarto zegoen.



**Angeles Martin**  
Etxekoandrea  
(51 urte)

Lehen baino hobeto utzi dute behintzat, fruta saltzen duten postuak asko aldatu dira eta argitasun handiagoa dago gainera.



**Julio Valle**  
Jubilatua  
(58 urte)

Ondo dagoela iruditzen zait, lehen baino askoz ere hobeto. Ohitu arte arraro samarra egingo zaigu, erdi despistatuta bait gabiltza, baina ondo dago.



**Maria del Mar Garcia**  
Langabetua (24 urte)

Bazegoen aldatzeko beharra, eta gustatzen zait zela utzi duten. Sarrerakoak ez zaizkit gehiegi gustatzen, jende asko dagoenean ezin da pasatu eta, baina gainontzean oso ondo dago.

**LAURA**

GAZTE MODA

Erdiko kale, 30  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 57 20

**Berango**



**Sukalde-  
altzariak,  
mahaiak eta  
aulkiak.**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g. Gipuzkoa Etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Iguatorialdea ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterongo liburutegia**  
 Monteraon ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 23**  
 Egunez eta gauez: Morales, San Andres.

**Larunbata 24**  
 Egunez eta gauez: Azkoaga, Ferrerías.

**Igandea 25**  
 Egunez eta gauez: Español, Iturriotz.

**Astelehena 26**  
 Egunez eta gauez: Corcuera, Musakola.

**Asteartea 27**  
 Egunez eta gauez: Irizar, Erguin.

**Asteazkena 28**  
 Egunez eta gauez: Amezua, Santamaina.

**Osteguna 29**  
 Egunez eta gauez: Aurora Ruiz, Maala.

**23 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "30 minutos para morir"  
 (7, 9.30)

**UDAL PLENOA**  
 Udaletxean arratsaldeko 7etan.

**ROCK KONTZERTUA**  
 Sonambulos taldearen kontzertua. Elorrioko Kafe Ateneon. Gaueko 11etan.

**24 LARUNBATA**


**ZINEA**  
 "Jamón, Jamón"  
 (7, 9.30)

**KINTOEN BAZKARIA**  
 70. urteko kintoen bazkaria. Musakolako Hostalean.

**ANTZERKIA**  
 Komite Internazionalistak antolatuta, Herriko Plazan gaueko 10.30etan Ekekei taldearen "Ni naiz Kapitan Piloto" obra.

**"NI NAIZ KAPITAN PILOTO" ANTZEZLANA**

**Aste Internazionalistaren barruan "Ni naiz Kapitan Piloto" lanaren antzezpena egingo du Ekekei antzerki-taldeak, bostgarren mendeurrenarekin zerikusia duen lanaren antzezpena hain zuzen ere.**



**Antzerki lan hau herriko plazan ikus ahal izango da larunbata gauean, 10.30etatik aurrera. Komite Internazionalistetako antolatzaileek adierazi dutenez, euria balitz, plazan beharrezko parrokiako arkupetan izango litzateke antzezpena.**

**KINTOEN BAZKARIA**

Bihar larunbata, 70eko kintoek festa eguna ospatuko dute. Musakolako Hostalean izango dute bazkaria eta beharrezkoa da izena aurretik ematea. Interesatuok Pancracio ileapaindegian edo telefono honetara deituz eman dezakezue izena: 79 72 79.

**25 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Jamón, Jamón"  
 (7, 9.30)

**ERAKUSKETA**  
 "America 500 urte", azken eguna, Monterronen.

**AEK EGUNA**  
 Lezon, autobusak Arbolapetatik goizeko 9etan. Udalerrri Euskaldunen Eguna, Aulestian.

**AEK EGUNA LEZON**

Igandean AEK Eguna burutuko da Lezon, bertan AEKko ekitaldi berezi batean parte hartzeko aukeraz gain, trikitilari, bertsolari, txistulari, kantaldi... eta beste hainbat ikuskizun izango dira. AEK eguna dela eta, autobusak antolatuta dira, goizeko 9etan Arbolapetatik irtengo direlarik. Bidairen prezioa 900 PTAtan ezarri da eta izenematea Hire, AED eta Bionan egin behar da. Autobusik antolatuta ez bada ere, aipagarria da igandean ere Udalerrri Euskaldunen Eguna burutuko dela Aulestin eta Lezon bezala, makina bat ikuskizun izango dela. Beraz, euskalzaileek badute aukerarik igande honetarako.





**26** ASTELEHENA**ZINEA**

"Jamón, Jamón"  
(7, 9.30)

**IKASTAROA**

Open Access, hilaren 30a arte,  
IMI gelan.

**"JAMÓN, JAMÓN"  
ALAI ZINEMAN**

Mikel Intxausti.

**Bigas eztabaidatuaren azken filmea. Monegros basamortuan herri txikiko giro itxia, bidebazterreko putikluba, emagalduta maitagarria eta bere alaba, triangulu anitz eta nahasiak, gorrotoak eta borroka, urdaiaz-pikoka. Goya-ren Espainia beltza, XXI. mendean atarian bizirik dirauen Espainia sakona. Estetikoki ederra, irudietan deigarria, filme gomendagarria. A! eta ez galdu bukarako kredituak!**

**27** ASTEARTEA**ZINEA**

"Jamón, Jamón"  
(7, 9.30)

**28** ASTEAZKENA**IKASTAROA**

Yoga Elkartearen, hasiera mailakoa elkartearen bertan eta jubilatuentzat Ferixalekuan.

**29** OSTEKUNA**IKASTAROA**


Yoga Elkartearen, bazkideentzat.

**"LARUNBATERO"  
ATZERATU**

Hainbat komunikabidetan besterik esan bada ere, AE-Dko Larunbatero ekitzak ez dira asteburu honetan hasiko, datorren astean baizik. Beraz, larunbat lagunartean eta dibertsiorako ekintzak burutuz eman nahi duzuenok, bihar zortzi hasteko aukera.

**ESKOLA POLITEKNIKOKO  
PRODUKZIO ZUZENDARITZAKO MASTERRA**

Eskola Politeknikoak produkzioko zuzendaritzako masterra antolatu du. Urtarrilaren 13an hasiko da eta urtebeteko iraupena izango du. Hilabete hauetan, gai desberdinen inguruan banatuko dira klaseak. Bertan parte hartzeko, beharrezkoa izango da Ingeneritza Tekniko titulua eukitzea. Plazak mugatuak dira eta 20 ikaslek bakarrik osatuko dute taldea. Matrikula epea azaroaren 30an bukatuko da eta epea bukatu ondorengo 15 egunetan, ikasle bakoitzari onarpen erabakia jakinaraziko zaio. Interesatuok Eskolara zuzendu.

**SALMENTA TEKNIKEI  
BURUZKO IKASTAROA**

Arrasateko erdialdeko merkatal eta zerbitzuen elkarteak Ibai-Arte salmenten teknikei buruzko ikastaroa antolatu du. Pasa den astelehenean hasi zen ikastaroa eta arratsaldeko 2.30etatik 4.30etara emango da. Datorren 31an bukatuko den ikastaroan gai desberdinak tratatzen ari dira: salmentarako prestakuntza, bezeroaren psikologia, helburuak... Zaldibarko Mankomunitatearen instalazioetan ematen dira klaseak.



“Arrasate Korporazio Kooperati-  
boak Max Center egitasmoarekin bere azpiegitura guztia  
mugitu du, distribuzioa eta finantzieroaz gain indus-  
triala ere eraikuntzan sartuz. Erronka handia da. (...) Pozgarria da jakitea oraindik ere herri honetan badela  
planak egiten dituen eta ausartzen den jendea”

**Mariano Ferrer.** 92-10-16

**Loiola Irratia** 

“Hala ere, Eurozentrismoak,  
askatasunaren printzipe zuriak bere hankatxo beltzak  
erakusten ditu... irina apur bat mugitu orduko.(...) Herri  
amerikarren borroka... temura, maitasun, aldakuntza eta  
iraultzarako duten potentzial handiak... pentsamendu  
emanzipatzailea sortzen du eta sumendiak bezala egiten  
du eztanda, bere laba askatzailearekin eurozentrismoaren  
hankatxo beltzak desitxuratu egiten ditu.

Dialektika horretan, Euskal Herria... metropoli  
europarren bihotzean kokatua... ez da indiferentea,  
berak sufritu ditu eta lehenik bere haragian eta odolean  
eurozentrismoaren hatzamarakadak eta zapalduentzak  
teoria bat berregiterakoan bere destinaua dago jokoan. Eta  
horrela... prozesu hori ulertzearekin...gure internazio-  
nalismoa birdefinitu egiten dugu”.

**Antxon Mendizabal** 92-10-11

**egin**

“...Gaur, gizarte bizi eta plural  
baten eskakizun eta beharrian guztiei aurre egiteko gai  
den aurrekontu publikorik ez dagoenean; markatzen  
dituen dinamikei eraginkortasunez eta azkar erantzuten  
dien makinaria administratiborik ez dagoenean, eta batez  
ere, gizartearen beraren bizitasunak interes orokorreko  
ekintzetan agente sozialek parte hartzea behar duenean,  
partaidetza hori bideratzeko tresnarik egokienetako bat  
bezala agertzen zaigu mezanazgoa”.

**Esther Larrañaga.** 992-10-8

**EL DIARIO VASCO**

## Zeuden beharrei erantzun diete azokako obrek?

**A**zoka ez zegoen behar bezalako baldintzetan, gainera Osakidetzak ere osasun aldetik akatsak zituela adierazi zuen eta konpondu beharra zegoela, azkenik kontuan hartu behar da, barruan ezezik, kanpoan ere postuak jartzen zirela eta hori nolabait konpondu behar zela.

Konpondu beharra eta toki eza ikusita, saltzaile guztiak barruan sartzeko moduko proiektua egin zen. Obrak egiteko garai egokiena zen, postu finkoen kontratuak bukatzen zirela eta berritu beharra zegoelako. Kontratoak hamar urtetarako egin dira eta epe horretan jende asko jubilatu egingo denez, orain postu gutxiago daude eta beraz toki gehiago.

Postuei buruz, esan behar da saltzaile bakoitzak nolakoa izatea nahi zuen azaldu zuela egin aurretik, eta proiektua egiterakoan hori kontuan hartu zela. Dena dela, egindakoarekin ez daude oso ados, badirudi batzuk sarrerak beste alde batetik nahi zituztela, apala batzuk kentzea ere nahi dute... salmenta postuak poliki poliki moldatuz joango dira.

Obrekin aurpegia garbitu zaio Azokari, argia sartu da, sapaia aldatu, margotu egin da, zorua jaso eta salmenta postuetan ura sartu da, saneamendu guztia aldatu... obra handiena ez da ikusten. Obretako arazorik handiena saneamenduan zegoen, Azokako sapaian pisuetako tuberia danak bait doaz. Dena dela, oraindik komunak eta azokarako pasabideak konpondu beharra dago, badirudi guzti hori datorren urtean egingo dela, itxura batean orain ez dago dirurik eta.



**Antxon Etxenagusia**  
Azokako arduraduna



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



**Azokaren inaugurazio ofizialaren ekitaldia**

Nahiz eta obrak bukatu zirenetik Azoka martxan egon, pasa den ostiral goizera arte ez zen Azokaren Inaugurazio Ofizialaren ekitaldirik burutu. Udal ordezkariak goizeko 9etan Azokan bildu eta salmenta postuen artean buelta bat egin zuten eta, saltzaile batzurekin hitzegin. Horrenbestez, amaitutzat eman zen ohizko inaugurazio ekitaldiekin zerikusirik izan ez zuen Azokako inaugurazioa. Bistara, Azoka txukun dago, argitasun eta garbitasun handiagoz eta orokorrean saltzaileak pozik dira, salmenta postuetako balden altueraz kexaren bat izan arren.

Azokaren inaugurazioa alde batera, badirudi ostiraletan San Andresen eta Grupo San Juanen egiten den arropa merkata, hemendik aurrera ostegunetan eta Azoka inguruan egingo dela.

**Rock jaialdia**

*Chilli Confetti*, *Die Testers* eta *Hirn* talde alemaniarrek joan den ostiraletan Musakolako kiroldegian eskaini zuten kontzertua ikusgarria eta arrakastatsua izan zela esan daiteke. Gaztetxeak antolatutako ikuskizunera 1.000 lagun inguru hurbildu zen Musakolara. Kontzertua gaueko 11etan hasi zen eta goizeko 3ak pasatxo bukatu,



**Max Center, MCCren proiektu berria**

Arrasate Korporazioak, Lagun Aro eta Eroskiren bitartez, Max Center proiektuan hartuko du parte, Estatuan eta Portugalen 12 merkatal zentru erraldoi eraikiko dituen proiektuan, 150.000 milioi PTako inbertsioarekin. Dagoeneko Bilboko Kareagan zentru bat eraikitzeke lehen urratsak eman dira; gainontzeak, dirudienez, Bartzelona, Sevilla, Valentzia, Santander eta Valladoliden eraikiko lirateke. Zentru bakoitzean, hiper-merkatu batetaz gain, zerbitzu ugari eskainiko dira: jatetxeak, denborapasak, zineak, moda desfileak, haurtzaindegiak, banketxeak....

Proiektu honek, 1993ko mugen desagerpenak ekarriko duen merkatu zabalari aurre egiteko helburua du.

*Die Testers* taldearen su espektakulo ikusgarriaz. Dirudienez, larunbateko talde alemaniarrek Euskal Herrian egin behar zuen azken kontzertua izan zen eta despedida-gisa eskaini zuen suaren espektakulua, ikusleengandik benetan eskertzeko modukoa.

**Gas naturala sartzeko obren azken fasea**

Musakolan dagoeneko martxan daude gasa sartzeko obrak eta eguraldiak laguntzen badu, baliteke

urte bukaerarako amaituta egotea. Udala saneamendusarearen berrikuntza egiten ari da, eta obra horiek aprobeztatuz sartuko da gasa.

**Gaztetxeari buruzko hitzaldian jende asko**

Gaztetxea eztabaidarako gaia da oraindik eta plazartzten den bakoitzean jende askoren interesa erakartzen du. Beharbada aipatutakoagatik, joan den ostegunean Monterongo hitzaldi-aretoa jende gaztez gainezka

zegoen, AEDk antolatutako "Zer irtenbide du Gaztetxeak? Zer asmo du Udalak, eta Gaztetxeak jendeak?" izenburuko hitzaldi-debatea entzuteko. Gaztetxearen aldetik Garikoitz Uribetxeberriak hitz egin zuen eta Udalaren aldetik, berriaz, Gazteria Batzordeburuak, Isabel Gallastegik; moderatzaile lana Leire Diaz de Gereñuk bete zuen.

**SUDC - tabernariak**

Ostiraletan SUDCekoek afari eder bat ordaindu zieten tabernariei. Izan ere, irailaren 19an jokaturako futbito partiduan SUDCekoek galdu egin zuten. SUDCekoak, ez ziren afari hori ordaintzearekin konformatu, afalostean musean beste bat galdu zuten eta.

**JAIOTZAK**

- Estefania Bengoa German. Urriaren 5ean.

**HILDAKOAK**

- Maria Garcia Sevillana. Urriaren 11n. 82 urte.
- Margarita San Nicolas Aurtetxe. 11n. 79 urte.
- Gabriel Coma Garcia, 17an. 80 urte.
- Antonio Inazio Egiluz Iriarte. 18an. 66 urte.
- Jose Maria Etxebarria Garcia, 18an. 81 urte.

**EZKONTZAK**

- Juan Oscar Hernandez Perez & Ana Belen Benito Hernandez. Urriaren 11n. Elizaz.
- Rafael Estrella Sopo & Francisca Naranjo Portalo, 17an. Elizaz.

BLUSAS OSAGARRIAK POLTSAK

**XAHO**

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

comercial san juan

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4

Tfnoa: 79 13 84

Garibai, 12

Tfnoa: 79 13 05





GEOFF BATE \*

## Estatu Batuetako presidente hautaketaz

**USAko** presidentea hautatzeko garaian Arrasaten dagoen amerikar bat naizen aldetik, normala da hauteskondeei eta hiru hautagaiari buruzko iritziak trukatu nahi izatea jendeak. Iritzi-truke honen ebaluazioan oinarriturik daude, gutxi gorabehera, ondorengo lerroak.

Lehenik, esan behar da amerikar politikari eta hauteskondeei buruzko informazioa ia komunikabideen bidez bakarrik iristen dela Euskadira eta Arrasatera, eta hauek gauza bitxi eta barrengarrietara jotzeko joera izaten dutela, batez ere, hautagaien nortasunari eta elkarren arteko erasoei dagokienean. Hau egia dela baietsi behar dut, sarritan hautagaiak barrengarri eta arraro agertzen baitira, eta amerikar jendea iritzi honekin bat dator neu-

ri handi batean.

Bill Clintonek, seguraski irabazle izango denak, gutxienez badu talentua. Elvis Presley-ri buruz duen iritzia goren mailakoa dela dirudi, eta "President Elvis" ezizena irabazi du honengatik. Une honetan amerikar gehienei "President Elvis" en aukera hobekuntza handia iruditzen zaie Hollywoodeko erdizpurdiko aktore Reaganen eta honen ondorengo Bush odolurdinaren aldean.

.....

*"Jende arruntaren  
desilusia beste  
edozein  
herrialdetan baino  
handiagoa da  
Estatu Batuetan"*

Zergatik dira hautagaiak hain txarrak? Hemen dago benetako gaizki-ulertzea. Komunikabideen arabera, badirudi hautagai hauek amerikar jendearen gurari eta nahiak ordezkatzan dituztela, baina hain zuzen ere kontrako da egia: jende arruntaren desilusia eta distantzia politikoekiko "Mendebalde Demokratiko"ko beste edozein herrialdetan baino handiagoa da Estatu Batuetan. 1988an, presidentziarako azken hauteskundeetan, eskubidea zuten botuemaileen %50a baino gutxiago arduratu zen botua emateaz.

Hautagai-talde honek, burugabeen nazio baten borondate demokratikoa baino gehiago, herri-partaidetza murrizteko tekniketan munduan aurreratuena den demokrazi ereduordezkatzan du. Nire ustez, honexegatik ikusten dugu europar politikariek, Euskadikoek barne, gero eta gehiago jotzen dutela demokrazia ordezkatzailerik hutsaren amerikar eredurantz, gobernu-botearearen kontrolean eskuhartzen duten alderdi eta politikarien eraginez batez ere. Joera honen adibide garbia da europar politikariek Maastricht-eko Tratatuan europar proiektua gauzatzeke modua. Amerikar hauteskundeetako zentzugabekerieta etorkizunerako ohararazpen edo abisua ikus daiteke garbi.

\* ESTATU BATUETAKO  
SINDIKALISTA

## USTEAK USTE

**Zenbat aldiz entzuten dugu egunaren akabuan SIDA-HIES berba dantsua? Auskalo! Izan ere, egunero datu berriak ematen dituen gaia da, jendearen belarrietan zulo berezia egiten duena (bazen garaia!). Zorioneko mendeurrena bezain gai klabe egin da behintzat, ez dakigu hainbeste diru gastatzeko adina, baina.**

**Eta pentsatzen jarri naiz datu hotz eta hotzikaragarri horien atzean dauden haragizko errealitate horien berri ba ote dakigun, non eta iragarki lotsagarri lotsabako batek edo sentimentalkeria hutsez emana ez den.**

**Datu hotz horien alde beroan, hala ere, pertsonak daude egunero euren gaixotasunarekin bizi izaten, indar apurrak erraldoi izugarri baten aurka gastatzen, eta okerragoa dena, zer duten esateaz lotsatzen ez direlako Mondragoen bertan hainbat ateran muturretakoa hartzen. Argumenturik behar ez duena argudiatu beharrean. Hartara nentorren, baina alperrik hasiko naiz eskandalozkoa iruditu zaidan kasu bat kontatzen, seguruenik bat gehiago izango da eta. Borroka horrek ez bait du siglarik, izen ixil asko baizik.**

ARANTZAZU LOIDI

**ARAMAIO  
okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46



**Umeentzako  
moda**

Ferrerias Kalea, 34  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 97 86

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**



**77 05 65**




# Meatzerreka: 19 baserritan bizi diren 82 pertsonen auzoa

**Kaletarrentzat, zeharo ezezagunak izaten dira askotan baserri-azuoetako behar, arazo edo eta ezaugarriak. Arrasaten bederlatzi baserri-azuo daude, ondorengo bederlatzi asteetan bakoitza bere izaeraz, ARRASATE PRESSEKO orrialdeetara hurbilduko zaizkigunak.**

## Kanpazarrerako bideko auzoa

Meatzerréka izenaren nondik norakoaz hitz egite-rakoan, Jose Mari Langaran auzo-alkateak, batzuk bertan garai batean meategiak zeudela diotela zioen, "lurrak minerala ei zuen; hemendik hartu eta Zigarrola ingurura eramaten zuten, han garbitzeko".

Kanpazar gainera darman bidearen alde bietan kokatzen da Meatzerréka auzoa, San Valerio patroitzat duena. Gaur egun, hemeretzi baserrik osatzen dute Meatzerréka, baserrian ateratakoarekin bizi denik ez badago ere, jende gehienak eguneroko ogia lantegietatik ateratzen du eta. Ganadua duten baserriak 8 dira, etxe



San Valerio, Meatzerrékako patroiaeren ermita.

inguruan zelaia edo baratza dutenak guztiak, eta pinudiak dira nagusi inguruetan.

Udalaitzpeko auzo honetan 82 lagun bizi dira, gehienak bertan jaiotakoak. Hiru baserritakoak izan ezik, auzoko gainontzeko biztanleak euskaldunak dira;

San Valerio patroiaeren jaiak ospatzen dituzte Meatzerrékakoek, urtarilaren

29aren aurreko edo osteko asteburuan. Hiru eguneko jaiak izaten dira, auzo-girokoak.

## Arazoak konponbide zain

Jaiak urtean behin izaten dira, beharrak edo arazoak, aldiz, urte osoan eta alde horretatik Meatzerrékan badago zer aipaturik. Auzoko

alkatearen esanetan arazorik larrienak, lokal baten eza, zabor zerbitzua eta urarena liraketeke. "Orain soziedadean biltzen gara, baina auzoak lokal baten beharra dauka, baliteke egunen batean soziorik gabeko auzo-batzordea izatea eta. Horretaz gain, uraren zerbitzua hobetu beharra dago, orain arte manantialak aprobetxatuz moldatu behar izan dugu, baina Meatzerrékan depositoa eginda dago eta hortik ekarri beharko da. Inzinedarora auzoan bertan egonda ere, zaborra norberak eramane behar izaten duenez, zerbait egin beharko litzateke. Lehen Kanpazar Garajea parean kontenedoreak jarri zituzten, baina ez zuten ezertarako balio, dena oso zikin geratzen zen. Korreoarekin antzerako zerbait gertatzen da, gehienek apartaduren bat dute Correos-en; dena dela, badi-rudi orain Bizkaia Etorbidean jarri nahi duten kutxa baten bidez konponduko dela. Azkenik, pistak konpondu beharra aipatuko nuke, oraindik 4-5 baserritara joateko bideak asfaltatu barik daude eta. Orain 6 urte konpondu ziren batzuk, baina arrazoi ekonomikoengatik besteak lehen bezala daude".

**BIONA**

Zurgin Kantoi, 2  
Tfnoa: 79 20 04  
ARRASATE

**PAZI-OLA** SA  
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2  
ARRASATE Tfnoa 79 29 94





Azken odol emateetan 100 lagunek lehen aldiz eman dute odola.

## Gero eta gazte gehiago odola emateko orduan

Irailko 9 egunetan anbulategian eta urriaren 14 eta 15ean Eskola Politeknikoan egindako odol-emateetara 501 arrasatear hurbildu ziren, Arabako Odol Bankuan emandako datuen arabera. 501 pertsona horietatik, 416 anbulategira joan ziren odola eman asmoz, Eskola Politeknikora, berriz, 85. Asmoa askotan ezin izaten da errealitate bihurtu eta, arrazoi desberdinak medio, 94 lagun odola eman ezinik geratu ziren.

Arabako Odol Bankuko arduradunetarikobatek aipatzen zuenez, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan gero eta odolemale ge-

hiago omen dago, gazteak gainera. Zentzu horretan, aipagarria da azken kanpainan Arrasaten 100 lagun hurbildu direla lehen aldiz odola ematera, emale berriak beraz. Esanguratsua izan daiteke ere, esatea Eskola Politeknikoan egindako odol ateraldiak ikasleen ekimena izan direla, eta odol ateraldien ekipoa Arrasatera pentsatzen zena baino bi bider gehiago etorri behar izan dela.

Iraila eta urrian zehar burutu den kanpainaren ondoren, Arrasaten 788 odol-emale daude zentsatuta, gehienak O<sup>+</sup> eta A<sup>+</sup> motako odolekin.

## Alkateak Maltzaga - Urbina errepidearen alde

Bailarako alkateak, Arrasatekoa barne, Josu Bergara, Eusko Jaurlaritzako Herrilan eta Garraio sailburuarekin bildu ziren Errepideen Plan Orokorra- ren Aurrerapenari buruz duten jarrera ezagutarazteko. Sailburuarekin bildutako alkateek, Maltzaga - Urbina errepideari lehentasuna ematearen aldeko zirela adierazi zuten, lehentasuna ematea erabaki historikoa zela, eta errepidearen eraikuntzak bi eskualde indartzeko balioko duela.

## Hiru etxebizitza bederatzi gutxitu fisikorentzat

Larreko proiektuan gutxitu fisikoentzat eraiki behar diren 3 etxebizitzetarako, 9 gutxitu fisikok eman dute izena. Aurkeztutako bederatzi eskarietatik bat alboratua izan da, eskaria egin zuena ez zegoen Arrasaten enpadronatuta eta. Etxebizitzak nori eman erabaki arte, besteek itxaron egin beharko dute.




**BEROGAILU  
ETA GAS  
INSTALAZIOAK**

**CIEGAS**

Garro Jenerala, 2-1 ez. Tfnoa: 77 00 77 ARRASATE  
Romualdo Galdos, 22. P-13. Tfnoa: 11 40 64 EIBAR  
Particular de Ategorrieta, 2 etxabea. Tfnoa: 27 39 20 DONOSTIA

**Informazioa nahi baduzu zure esku duzu gure laguntza.**




**“Bezeroaren telefonoa”**  
**901- 20 20 20**

Edozein zalantza konponduko dizugu:

- Hornidura-eskabidea
- Kontratazioa: altak, bajak, aldakuntzak
- Ordainagiriaren gaineko argibideak
- Ordainagiriak banketxean helbideratzea
- Kontadore irakurketak hartzea

Eta behar duzun beste edozer kontsulta edo informazio.







Aldibereko Itzulpen Sistema zinegotzientzat izango da, ez plenoetara doan jendearentzat.

## Aldibereko Itzulpenaren estrainaldia gaurko plenoan

Urte askoan eztabaidagai izan ondoren, Aldibereko Itzulpen sistema estreinatuko da gaurko plenoan. PSOEek Aldibereko Itzulpen sistemaren eskaria aspalditik egin izan du, Ardantza Alkate zenetik gutxienez. Orduetik eta aurren arte, itzulpen sistemaren eskaria egin duen bakoitzean, PSOEek ez du aurrera ateratzerik lortu. Dena dela, Arrasateko PSOEek lehen eskari formala, orain bi urte egin zuen, orduan Euskara Batzordeak baieztatu moduko eman zion, baina Gobernu Batzordeak ezetza. Azkenik, aurtengo aurrekontuetan Aldibereko Itzulpen Sistema jartzea onartu zen.

Itzulpen zerbitzu berriak zinegotziak baliatua ahal izango dira bakarrik, eta ez plenoetara doan jendea. Itzultzailea, Pleno Aretotik kanpo egongo da; mikrofonoa, aurikularra, amplifikadorea, emisio-gailu bat eta Pleno Aretotan nor hitz egiten duen ikusteko telebistako bi pantaila izango ditu; zinegotzietan, berriz, aurikular-hargailu bat jarriko zaie.

Tresneria guzti horrek 2.800.000 PTako kostua izan du, eta Aldi Bereko Itzulpen Sistema jartzeko aurrekontua 2.000.000 PTakoa da; gainontzeko 800.000 PTak onartzea plenoko gai-zerrendan bertan dago.

### Udal plenoan gai ugari

Gaur Udal Plenoa burutuko da, gai-zerrenda luzearekin. ARCEPAFE-aren onarpena, tabernetako ordutegia, kanposantuko araudia edo eta Uribarriko jubilatuen tabernaren adjudikazioa moduko gaiak eztabaidatuko dira.

### Soldaduzkaren ordezkotzerbitzua

Gurutze Gorriak, 1975-1976 urteetan jaio eta 1994an Borondatezko Zerbitzu Ordezkoa egin nahi duten gazteei jakinerazten die asmo hori aditzera eman dezatela telefono honetan: 76 55 76.

### Lana pintura irakasle batentzat

Udalak marrazki eta pintura ikastaroetarako irakasle eta arduradun bat kontratatuko du, Monterronen klaseak eman ditzan. Interesatuek 30a baino lehen aurkeztu beharko dute curriculum-a Kultura Batzordean.

**DAMKART**

Estetika eta  
Ileapaintzaile Eskola  
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.  
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52  
EIBAR

**MECA RAPID**

- Ikusentzunezko mekanografia. 200 eta 300 pultsazio minutuko.
- Irakaskuntza garantizatua.
- Ordenagailu bidezko mekanografia.
- Master V. D. takigrafia.

Otalora, 3 1.C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

**Zarraoa**

ESTETIKA ZENTRUA

Lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

**ARRASATE PRESS**

HARPIDETZAK

77 05 65






El Correo egunkariak egunero ateratzen duen "Excursiones de un día" kuaderniloaren barruan, aste honetan Aramaiori buruzkoa etorri da. Herriaren kokapena, auzo eta dorretxeen berri, inguruetan dau den ermita eta egunpasa tokien deskribapenak eta Aramaioara joateko bideak agertzen ziren bertan. Egun batzuk lehenago Arantzazuri buruzkoa atera zen.



Joan den larunbatean ezohizko bisitaria ikusi zen Arrasateko etxeen gainean: Arrano handi bat. Ia egun osoa hemengo zeruan bueltaka ibili ondoren, iluntze aldera arrasatear batzuk San Prudentzian ikusi zuten, errepide ondoko petrilean geldik, autoei begira.



**Hilaren 21ean San Viator Eguna izan zen. Normala denez, San Viator Ikastolan egun hori behar bezala ospatu zuten. Marrazki edo perretxiku lehiaketak, irakasle eta ikasleen**

**arteko futbito eta saskibaloitako partiduak, sokatira eta ezohizko beste hainbat ekintza burutu ziren San Viator egunean. 22an, egunero liburuetara itzuli behar!**

**ARRASATE  
PRESS  
HARPIDETZAK**



**77 05 65**

**• ARTEA •**

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



## IZEN PROPIOAK

● **Alberto Elorza**, 30 urteko oñatiarra eta Arantzazura bidean dagoen Zelai Zabal jatetxeko sukaldaria, ari da AEDko Ekin Emakume taldeak antolatutako sukaldaritza ikastaroa ematen. Datorren asteartean emango du azken klasea.

● **Pedro Mendieta** atxabaltarra, Max Center proiektuko Zuzendari Orokor izendatu dute, Estatu osoan eta Portugalen 12 merkatal-zentru erraldoi eraikitzeko proiektuaren arduradun. Pedro Mendieta urte asko daramatza kooperatibetan lanean eta Aretxabaletako Alkatea da.

● **Juan Barberan**, 33 urte, arrasatearra, atzotik Udaletxeko Hezkuntza Teknikari berria da. Juanito Barberanek Oñatiko ETEO ikastetxean egin zituen Enpresa Zientzien ikasketak eta orain arte Eroskin ibili da lanean. Ezkondua da eta ume txiki baten aita.

EXPO'92

SEVILLA

Centro de Prensa Press Centre

Apellidos Surnames	OTADUY LUNA	
Nombre / First Name	ROSA	
Núm. D.N.I. & Pasaporte / Passport No.	15340139	
Medio de Comunicación / Medio	ARRASATE PRESS	
País / Country	ESPAÑA	
Hím. / Hím.	158433	


No 250388

EXPO'92

SEVILLA


07-04-92

09-01-92

PRENSA  
P R E S S

Rosi Otaduy eta Elena Arrieta arrasatearrak etorri berri dira Sevillako EXPOtik. ARRASATE PRESSEKO kredentzialak hartuta joan ziren biak, eta

Arrasateko giltzak eraman zituzten EXPOa ixteko. Sevillatik bueltan, han lortutako kazetari kredentziaz gainera, informazio eta istorio ugari ere ekarri dizkigute.



Basaurin burututako Euskadiko Makallau Lehiaketan izan zen Balentin Moreno, SUDC-en ordezkaria. Lehiaketan 61 partaide izan ziren eta arrasatearrak ez zuen saririk lortu.

Monte  
tabernaMaalako errabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56BAYAR  
TOKI ONELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

SAMEGO  
GARBIKETAKUriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39



**Zatoz eta ikusiko duzu.**



Argazki: Sony CVP - G 700  
bideo-inprimagailuarekin  
telebistatik zuzenean  
inprimaturiko imagina.

**Donostian  
urriaren 27tik azaroaren 1era**



*Jose Aranzabal*

**Zatoz SONYMAGIC-era eta ikusentzutezkoen ikuskizun bikain batetan azken berrikuntzak gozatu ahal izango dituzu. Gainera, txartel bat eskuratuko duzu eta Sony produktu bat eros-teagatik beste bat jasoko duzu opari.**

*Jose Aranzabal*

**Zatoz SONYMAGIC-erako  
gonbidapenak jasotzera!**

Jose Aranzabal.  
Iturriotz, 15 Tfnoa: 79 15 16 ARRASATE



# Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



## Belarrondokoak medio, bi talde txapelketatik kanpo

Futbitoa kirola da, eta kirola den une beretik, kiroltasunez jokatu behar da. Joan den asteko ihardunaldian, Iturripeko kirol zelaietako bat guda-zelai bihurtu nahi izan zuten, eta baita lortu ere. Bi jokalariren arteko belarrondokoak, biek hartu eta emandakoekin bukatu beharrean, talde bietako jokalaria guztien arteko borrokarekin amaitu ziren. Ikusleek ere, txintxo portatu

beharrean borrokan parte hartu nahi izan zuten eta guardasolen bat edo beste agertu zen iskanbilaren erdian.

Arbitroak ez zuten borrokarekin amaitzeko adorerik izan, normala arbitro profesionalik ez dagoela pentsatzen bada. Disziplina-batzordeak erabaki argia hartu zuten, Zaldibar ez da boxeo-txapelketa; beraz, borrokalariak kanpora.

**NUEVO  
taberna**

Bañez Dokorea, 15  
Tfnoa: 79 99 88  
ARRASATE



DEBA  
**GARAIA**

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia  
Tifnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

**SEGURASKI BAIETZ !**



a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARRASATE KIROLAK	3	3	0	0	16	6	<b>6</b>
ARGI IBILI	3	2	1	0	29	6	<b>5</b>
LOS HEREDIA	3	2	1	0	14	4	<b>5</b>
DANOK LAGUN	3	2	1	0	12	4	<b>5</b>
URMAY B. K.	3	2	1	0	17	6	<b>5</b>
ZULOAK	3	2	1	0	12	6	<b>5</b>
KAIXO LENIZ	3	2	0	1	14	11	<b>4</b>
AIZPUN BILA	3	2	0	1	13	11	<b>4</b>
BETRAYER	3	0	3	0	8	8	<b>3</b>
BUKANAK	3	1	1	1	10	10	<b>3</b>
ITT	3	1	0	2	12	8	<b>2</b>
SIBILIUS ROVER	3	1	0	2	11	8	<b>2</b>
GARIBAI-5	3	1	0	2	10	11	<b>2</b>
WHISKERIA LINDE	3	1	0	2	10	20	<b>2</b>
DRINK TEAM	3	0	1	2	5	11	<b>1</b>
RESAKAS	3	0	0	3	7	22	<b>0</b>
DRAFT	3	0	0	3	3	25	<b>0</b>
AMOZKIBAR II	3	0	0	3	3	29	<b>0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>54</b>	<b>22</b>	<b>10</b>	<b>22</b>	<b>206</b>	<b>206</b>	<b>54</b>

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	3	3	0	0	29	6	<b>6</b>
MIKELOS	3	3	0	0	12	3	<b>6</b>
BIZKORAK	3	3	0	0	10	4	<b>6</b>
JODO FLORO	3	3	0	0	14	7	<b>6</b>
ZIZTI ZAZTA	3	2	1	0	22	8	<b>5</b>
DIEGO ANTONIO	3	2	0	1	12	6	<b>4</b>
ZULUS	3	2	0	1	18	12	<b>4</b>
KAKAJAURI	3	1	1	1	7	5	<b>3</b>
PUBLICOOP	3	1	1	1	6	10	<b>3</b>
GATZABAKUAK	3	1	1	1	6	14	<b>3</b>
LA BANDA	3	1	0	2	10	12	<b>2</b>
MOTZ	3	1	0	2	12	21	<b>2</b>
KAJOI TABERNA	3	1	0	2	10	18	<b>2</b>
BAYERN PROMESAS	3	0	2	2	8	13	<b>1</b>
LAUTHERBRUNNEN	3	0	2	2	5	13	<b>1</b>
ANBOTOSTE K. T.	3	0	0	3	7	17	<b>0</b>
TRONKOTEAK	3	0	0	3	8	20	<b>0</b>
ATERPE KAFETEGIA	3	0	0	3	3	10	<b>0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>54</b>	<b>24</b>	<b>6</b>	<b>24</b>	<b>199</b>	<b>199</b>	<b>54</b>

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	3	3	0	0	27	5	<b>6</b>
NOSKI	3	3	0	0	14	4	<b>6</b>
ADELAIDA-HAIZEA	3	2	1	0	14	4	<b>5</b>
ALPARGATA TURBO	3	2	1	0	19	6	<b>5</b>
ADOBE F. C.	3	2	0	1	14	4	<b>4</b>
TXOKO TABERNA	3	2	0	1	12	6	<b>4</b>
ARRASATE KRIST.	3	2	0	1	15	12	<b>4</b>
GANBELAS	3	1	1	1	7	6	<b>3</b>
ALLA KUIDAUS	3	1	1	1	9	9	<b>3</b>
NUEVO TABERNA	3	1	1	1	13	12	<b>3</b>
AUF DEM KOFFER	3	1	1	1	10	11	<b>3</b>
LASO-ARREGI	3	1	0	2	8	9	<b>2</b>
ATXANTA KE TE...	3	1	0	2	5	18	<b>2</b>
KRISKIBALDA	3	0	2	1	3	6	<b>2</b>
NABARROS	3	0	1	2	7	14	<b>1</b>
GURE LEKU	3	0	1	2	8	21	<b>1</b>
BALEIKE	3	0	0	3	6	22	<b>0</b>
SEGUROS ORBITA	3	0	0	3	6	27	<b>0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>54</b>	<b>22</b>	<b>10</b>	<b>22</b>	<b>197</b>	<b>197</b>	<b>54</b>

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
LENIZ GARAGAR.	3	3	0	0	14	2	<b>6</b>
FOTO IMAGEN	3	3	0	0	21	7	<b>6</b>
SUM. IND. UGARTE	3	2	1	0	22	4	<b>5</b>
NOTXINGAN FLO.	3	2	1	0	15	7	<b>5</b>
PEPELUS	3	2	0	1	18	8	<b>4</b>
MONTERREY TAB.	3	2	0	1	18	9	<b>4</b>
SOLANO 7 MARES	3	2	0	1	16	10	<b>4</b>
KOKKAS	3	1	2	0	10	8	<b>4</b>
SOKOAKOAK	3	2	0	1	12	9	<b>4</b>
LOS DIMY	3	1	1	1	16	9	<b>3</b>
POTROAK LORAT.	3	1	1	1	11	14	<b>3</b>
UGLYS	3	1	0	2	7	14	<b>2</b>
ZOTZ	3	1	0	2	7	21	<b>2</b>
ARTZANKOS	3	0	1	2	10	17	<b>1</b>
OLEEE!	3	0	1	2	8	16	<b>1</b>
ILUNA TABERNA	3	0	0	3	6	19	<b>0</b>
EZKINAKO HONTZAK	3	0	0	3	4	20	<b>0</b>
BAYER DE LEINTZ	3	0	0	3	5	26	<b>0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>54</b>	<b>23</b>	<b>8</b>	<b>23</b>	<b>220</b>	<b>220</b>	<b>54</b>

Zarugalde kalean...

# BRANKA

## taberna



# Bodisca s.l.

Zeramikako pabimentu eta gaineztaldurak

Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

# I R T A B E R N A

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 71 80



## ARRIARAN

UMEEN JANTZIAK

Otalora, 29 Tfnoak: 77 05 61  
ARRASATE



## EsLu

ILEAPAINDEGIA

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE





**Ez dira aste honetan partidu denak argazkikoa bezain garbiak izan. Denetatik ikusi ahal izan da: golak, aukera galduak, faltak... eta belarondokoak ere bai. Hirugarren ekitaldian osatu berri den Disziplina Batzordearen lehenengo erabaki gogorra: taldeen kanporatzea. Azkenak izan daitezela!**

**BELARRIRA**

◆ **Bar Kajoi - Fosforos** partiduan izandako arazoak direla eta, Disziplina Batzordeak bildu beharra izan zuen. Arrazoia zera da: bi taldeek izan zuten jokaera agresiboa, elkarriz mutur-joka ere aritu izan ziren eta. Disziplina batzordearen erabakia (antolatzaileen erabateko onespenerekin) bi taldeak aurtengoz, txapelketatik kanporatzea izan da, ekintza agresiboari amaiera emanaz. Aurrerantzean talde bi horien aurka jokatu beharko luketenean 0 - 1eko emaitzaz irabaziko dute.

Partidua jokatzeko orduan kiroltasun osoz parte hartzea erregutzen dute antolatzaileek, gertaturiko liskarrak gerta ez daitezen eta txapelketak irudi hobea izan dezan.

◆ **Asteburuko partidu interesgarrienak**

A taldean, Danok Lagun - Argi Ibili.

B taldean, Kakajauri - Diego Antonio.

C taldean, Noski - Arrasate Kristaldegia.

D taldean, Ezkiñako Hontzak - Iluna taberna.

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Drink Team 1 .....	Betrayer 1
Zuloak 3 .....	Bukanak 2
Resakas 2 .....	Sibilius Rover 9
Aizpun Bila 4 .....	Arrasate Kirolak 6
Draft 0 .....	ITT 9
Danok Lagun 1 .....	Los Heredia 1
Argi Ibili 3 .....	Urmay Burger King 3
Whisakeria Linde 3 .....	Kaixo Leniz 7
Garibai- 5 5 .....	Amozkibar II 0

**C TALDEA**

Atxanta ke te... 1 .....	Ganbelas 3
Laso Arregi 3 .....	Alpargata Turbo 4
Gure Leku 1 .....	Noski 4
Adobe FC 1 .....	Nabarros 1
Seguros Orbita 2 .....	Auf Dem Koffer 5
Trikiti 8 .....	Nuevo Taberna 1
Baleike 2 .....	Allakuidaus 6
Txoko Taberna 3 .....	Kriskibalda 0
Arrasate Kristaldegia 2 .....	Adelaida 6

**B TALDEA**

Mikelos 3 .....	Aterpe Kafetegia 1
Kakajauri 2 .....	Puublicoop 2
Zulus 9 .....	Lautherbrunnen 1
Bayern Promesas 1 .....	Jodo Floro 5
Anbotoste KT 2 .....	La Banda 6
Diego Antonio 0 .....	Bizkorak 1
Bar Kajoi 3 .....	Fosforos 11
Motz 5 .....	Tronkoteak 3
Gatzbakuak 4 .....	Zizti zazta 4

**D TALDEA**

Monterrey tab.9 ....	Ezkiñako Hontzak 2
Uglys 4 .....	Foto imagen 6
Sokoakoak 6 .....	Artzankos Udal. 3
Leniz Garagardo. 5 .....	Oleee! 0
Notxingan Florest 5 ...	Solano 7 mares 5
Bayer de Leintz 1 .....	Los Dimy 9
Potroak Lorategi 3 .....	Koxkas 3
ILuna Tabernak 2 .....	Pepelus 7
Suministros Ugarte 11 .....	Zotz 1

*Tripipublic*

Kanpatorpea, 2  
Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56  
ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
  - Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

**LIZARRA**  
**taberna**

Leintzibar kalea, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 72 35



**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 24**

**Zaldibar**

- 08.45 Notxingan Flores / Koxkas
- 10.00 Nabarros / Adelaida Haizea
- 11.00 Adobe / Kriskibalda
- 12.00 Lautherbrunnen / Gatzbakuak
- 13.00 Noski / Arrasate Kristaldegia
- 14.00 Jodo Floro / Tronkoteak
- 15.00 Sibilius Rover / Amozkibar II
- 16.00 Drink Team / Resakas
- 17.00 Leniz Garagardotegia / Pepelus

**Iturripe A**

- 09.45 Artzankos Udalaiz / Sum. Ind. Ugarte
- 11.00 Betraye / Whiskeria Linde
- 12.00 Mikelos / Zulus
- 13.00 Foto Imagen Argazki / Bayer de Leniz
- 14.00 Atxanta ke te... / Gure leku
- 15.00 Bayer Promesas / Ziti Zazta
- 16.00 Ezkiñako Hontzak / Iluna taberna
- 17.00 Arrasate Kirolak / Kaixo Leniz

**Iturripe B**

- 14.00 Uglys / Solano 7 mares
- 15.00 Seguros Orbita / Allakuidaus
- 16.00 Los Dimy / Potroak Lorategi
- 17.00 Kakajauri / Diego Antonio

**Igandea 25**

**Zaldibar**

- 08.45 Laso Arregi / Auf Dem Koffer
- 10.00 Danok Lagun / Argi Ibili
- 11.00 Alpagata turbo / Trikiti
- 12.00 Zuloak / Los Heredia
- 13.00 Bukanak / ITT

**Iturripe A**

- 09.45 Aizpun Bila / Garibai 5
- 11.00 Publicoop / La Banda
- 12.00 Aterpe Kafetegia / Motz
- 13.00 Nuevo taberna / Baleike

**Iturripe B**

- 09.45 Monterrey taberna / Sokoakoak
- 11.00 Ganbelas / Txoko taberna
- 12.00 Draft / Urmay Burger King
- 13.00 Oleee! / Zotz

**NON DAGO BALOIA?**



Joan den asteko argazkiaren soluzioa jakiteko hilaren azkenengo alera itxaron beharko duzue, orduan emango ditugu hile osoko argazkien erantzunak, zozketaz aterako dugun irabazlearen izena eta sariaren berri. Hile honetan berandu hasi garenez, bi argazki baino ez dira izango zozketarako; beraz, aukera gehiago izango duzue saria eskuratu ahal izateko. Ah! argazki baiktzaren erantzuna dagokion txartelean eta astebeteko epearekin bidali.

**2. astea**

**Non dago baloia?**

- Erantzuna .....
- Izena .....
- Tfnoa .....

*Trikiti*

S. L.

**SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA**

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56



## ● Eneko Landaburu

# Osasuna lortzeko bide berria

**Orain bi aste, hemeretzi pertsona bildu dira elkar-entzuketa ikastaroan Aramaion, Eneko Landaburu eta Esther Riego irakasleekin. Tendentzia berri honekin elkarren laguntza lortu nahi da.**

— Zer da elkar entzuketa?

— Elkar entzuketa elkarrekin edo elkar lagunduz hitz egitea da. Gizakiak bizi izateko arnasa hartu eta lasaitzea behar duen bezala, norbaiti kezka azaltzeko beharra ere badu. Helburu nagusia esperimentzia txarrak eta onak kontatzea da. Beste modu baten esanda, psikologoak bezeroarekin egiten duena, baina modu kooperatibo batean, zuk niri eta nik zuri eskainitako zerbitzua. Horretarako, nik ordu erdi hitz egiten badut, gero zuk beste hainbeste egingo duzu eta esan nahi duzuna entzungo dizut nik. Horrek asko laguntzen digu, arazoak kanporatzeak lasaitasuna ematen digu eta.

— Eta ikastaro hauetan zer da lortu nahi dena?

— Hasteko, denok elkar ezagutzea eta konfidantza maila bat lortu nahi izaten da. Dantza, jokuak eta beste


hainbat teknikaren bidez, denok elkar ezagutzea eta lotzarik ez izatea lortu nahi da. Kontzeptu teorikoak ere erakusten ditugu, gero praktikan jarriz. Etortzen den jendeak oso pozik irteten du, barruko gauzak kanporatu dituelako eta gauza berriak ikasi dituelako.

— Zer da medikutzatza higienista?

— Elkar entzuketan sartu aurretik, higienista korrente berri bat ezagutu nuen eta horregatik mediku higienista deitzen didate. Biziaren zentzua aztertzen da. Gaixoei bizi izaten ikasten badute, baliteke gaixotasun hori desagertzea. Bestalde, negar egitea osatzeko prozesu bezala ikusi beharko genuke, orain arte txarto ikusita egon diren gauza horiei beste zentzu bat ematea da gure helburua, izan ere, osatzeko funtzioa dute.

— Gaurko gizarteko arazoetan nola erabil daiteke metodo hau?

— Guk esaten dugu elkar entzuketa oinarritzko gauza dela eta beste arazo batzuk konpontzen laguntzen digula. Eta horregatik gure barruan dugun potentzial osoa errekuperatzen badugu, edozer



gauzari aurre egiteko prest egongo gara. Gaur egungo arazoei aurre egiteko ere prest egongo gara, gerra nuklearrari aurre egiteko, planetaren kutsadurari, goseari... Ikastaro berezi batzuk ere prestatzen ditugu beste arazo konkretu batzuk aztertzeko: droga, sexua...

— Barauari buruz zer?

— Guk askotan errekomendatzen dugu. Gorputzari inolako lanik ematen ez badiogu, ezta digestiboa ere, erreserbekin funtziona dezake eta ekilibrioa lortu. Gosea dugunean jan barik, gorputzak, dituen erreserbetatik bizi daiteke. Askotan bazkaldu barik, buruko min bat desagertu egin daiteke edo berdin kronikoak diren beste gaixoak.

— Nola ikusten duzu medizina tradizionala?

— Medizina garrantzi handia ematen die hasierako sintomei. Buruko mina baduzu, aspirina batekin momentuko mina kenduko zaizu baina luzera berriz agertuko da. Eta hori da azken finean aztertu behar dena. Gainera, hartzen diren botika guztiek kutsadura ere erraztu egiten dute, kimika dutelako. Drogomenpekotasuna maila handi batean erraztu egiten dute. Baina inportantea bizimodua ezagutzea da. Segurtasun sozialaren barruan dauden zerbitzuak onenak izatea eta dohainik eskaintzea ere lortu nahi dugu.

— Talde bezala nola funtzionatzen duzue?

— Elkar entzuketa praktikatzen dugunok *Sumendi* taldea osatzen dugu. Orain dela bost urte sortu zen Euskadi mailan eta gaur egun egiten ari gara gure teoriak zabaltzea da. Horretarako antolatzen ditugu ikastaro hauek, gu bakarrik ez garelako ezer, beste batzuegana zabaldu behar dugulako.

● **“Elkar entzuketa arazo pertsonalei aurre egiteko bide egokian da”**



Arantzazu Loidi

**Rosak sei urteko alaba du, Down sindromeduna, eta Arrasateko Aguidoneko ordezkari dugu. Astero astero ume eta guraso talde bat Kiroldegiko pizinarara joaten da umeekin kirola egitera. Zaletasuna hartzearekin batera, bizitzako arlo guztietara zabaltzea da helburua. Esther, Larraitz, Silvia, Aintzane, Andoni eta Josuk Inguruko herrietako umeak ere gonbidatu nahi dituzte eurekin ondo pasatzera.**

“Helburua ez da igerian ikastea, gorputzeko muskulu denak lantzea baizik. Hobby bat ere izan dezatela, eta eurentzako hobbyrik onena kirola da, gizentzeko joera handia dutelako, oso hipoto-



Ikastolako ariketez gain, astero igerian egitera.

# Zatoz gurekin uretara!

nikoak direlako eta abar.” Gurasoek ikastaro bat egin zuten aditu batekin eta gero monitore talde bat prestatu zen ariketa horiek herri ezberdinetan aurrera eraman ahal izateko. “Umeak bere ingurua ezagutzen eta hurbilen duenaz ohartzeko ikasi behar du, normalki gehiegi babesten dira eta, familian eta etxean bakarrik mugitzera mugatuz. Gainera, bainuko programarekin, autoestimulazioko ohiturak ezartzen zaizkio umeari, azkenean astean behin pizinarara joateko poltsa prestatu, jantzi, erantzi, uretan sartu etab egin behar ditu.

Fisikoki, mokorraren eta be-launen deskonpentsazioa orekatu, posturak menperatzera iritsi, eta muskuluetako hipotonia hobetzea lortzen da. Zeharka bada ere, kirola eginda elikadura normaldu egiten dute, gehiegi edo gutxiegi jaten dutenen arazoa konponduz”.

## **URA, HOTZEGIA**

Arrasaten biltzen hasi zirenean, Kiroldegira jo zuten astean egun baten joateko baimena eskatuz eta “oso ondo portatu ziren”. Baina horrezaz gain, Udaleko gizarte lagutzailearen bidez in-

# H

**elburua ez da igerian ikastea, gorputza landu eta kirolak egiteko ohitura eta zaletasuna hartzea baizik.**

guruko herrietako umeak gonbidatu dituzte. “Baina ez dakigu zer gertatzen den, ez dira etortzen, agian igerian ikastea dela ulertu dutelako, eta ez da hori, ariketa egitea baizik.”

Igerilekuaren baldintzen artean badago bat arazoak sortzen dizkiena. Ura hotzegia dago, baina ariketa horietarako behar den bezala, 32ºtan jartzea oso garesti aterako litzatekeela esan diete; milioi t’erdi. Diputazioan dirulaguntza eskatu dute eta erantzunaren zain daude. Mankomunitate maila egiteko modua ere ikusten dutela



esaten du Rosak. "Pizina txikiak errendimendu handiagoa izango luke ur beroa jarrita. Santa Agedakoek erabili ahal izango lukete, Eskualde zentruak, jubilatuen taldeek... denek ere temperatura epelagoak behar dituzte uretan".

Orain sei umerekin ari dira lanean, gehienak Arrasatekoak eta Sorluzeko bat, eta Bergararik ere laster etorriko dira, baina gainerakoak txikiak dira hain ur hotzetan sartzeko, "katarroak ere askoz errazago harrapatzen dituzte eta. Ez dira beste ume batzuk bezala, uretan sartu eta saltoka ibiltzen, norberak esan behar die zer egin behar duten. Berehala izoztuta geratzen dira. Eurentzat sakrifizio handia da, eta horretara txikitatik ohitu ez direnek ez dute entzuterik ere nahi izaten".

#### GURASOEN LAGUNTZA

"Euren bizitza besteonaren ahalik eta antzekoen egin nahi dugu. Ikastolan eta eskoletan sartu baditugu, bizitzako giro, jarrera eta kondukta guztietan egon daitezela integratuta, eta horretara ohitu egin behar ditugu".

Txiki txikitatik hasten dira gorputza lantzen eta ariketak egiten, eta bi urtetik aurrera monitorearekin jarraitzen dute lana, beti ere etxekoan edo konfidantzako norbaiten apoioa, animoak behar dituzten arren. "Umeei asko gustatzen zaie joatea, baina nahiko beldurriak dira. Orduan mentalizatuz joan behar dugu egun guztian eta bereziki animatu hara iristean, bestela mila aitzaki asmatzen dituzte. Hasiz gero oso gustora ibiltzen dira. Guretzat ere oso atsegina da, azkenean helburua hori ere bada, eurekin denboraldi atsegin bat igarotzea, uretan jolas egitea".

#### INTEGRAZIOAZ

Ume guztiak ikastolan daude, eta Rosaren iritziz oso ondo hartu dituzte bai esko-



Gero eta ume gehiago hurbiltzea nahi.

**P**izinako ariketak egiteko ur beroa behar da, eta aurrekontua onartzen bada, jubilatuek, Santa Agedakoek eta abarrek ere erabili ahal izango lukete.

Ume hauek dena imitazioz ikasten dute, hitzegiten, jaten, dena; eta bigarren belaunaldi honetakoak bizia goak dira "txiki txikitatik bizi izan dira beste batzuekin eta hartzen eta ematen ikasi dute, eta euren portaera gero eta antzekoagoa da, motelagoa baina berdina. Gauzak, beranduago baina ikasi egiten dituzte, eta lagundu egiten diete beste umeek. Ezin da sinistu zenbat maite dituen beste umeak eta besteek bera".

#### ETXEKOEN JARRERA

"Horrelako ume bat jaio-tzen denean haibesterainokoa da hartzen den kolpea, familia guztia beraren baitan biltzen da, bera aurrera ateratzeko. Beharbada norbere bizitza ez da asko aldatzen, baina gogorrago egiten zara, eta denek laguntzen diote. Ez dut esango horregatik familia batuago bat osatzen denik, ez da egia eta, baina bai pazientzia handiagokoa. Horregatik, oso zaila da umea downen sindromearekin jaio zaion ama batekin hitzegitea; nik esan izan diet, orain ez duela imaginatzen urtebetara zenbat aldatuko den familia eta zein ondo erreakzionatuko duen. Baina hori hasieran ez da ulertzen. Eta egia da, berezien munduko partaide egiten zara bapatean".

Eurak ez dira bereziak baina sentimentu hori bereziki polita da.

lan bai kalean ere. "Silvia beste ume guztiakin batera hazi da, eta nik sekula ez dut aurpegi txarrik ikusi inoren aldetik. Euren geletako umeak ere, euren inguruan, solidarioago, bilduago, batuagoak dira. Gauza guztietarako laguntzen diete besteek, eta elkarri laguntzen ikasten dute, eta esperientzia hori aberasgarria da besteentzat ere".

## Aguidown-eko bazkide zergatik ez?


Down sindromearen aldeko Gipuzkoako elkarte familiar-tekoek osatzen dute batez ere, baina bazkide babesleak egiteko ere badago aukera. Horrelakoetan gertatu ohi denez, dirulaguntzetarako eta, bazkide kopurua handia izatea garrantzitsua da. Horregatik, edozein egin daiteko bazkide, urtean 1.500 pezetako kuota ordainduta. Interesatuta bazaude, dei egin hemengo edozein gurasori, nahiz 47 15 67 telefonora edo Donostiako 1904 postakutxatilara idatzi. Integrazioaren aldeko pauso bat gehiago da.



# Maria Pilar eta Ramon: bi atleta aurrez aurre



**M<sup>a</sup> Pilar Valdezate**



**Ramon Jausoro**

- Emakumezkoa, 28 urte.
- Orain hamar urte hasi zen korrikan, Arrasateko krosean, geroztik aldika entrenatu du.
- Mendian ere ibiltzen zen.
- Orain urte t'erdia hasi zen serio samar.
- Geldirik ez egotearren egiten du korrika.
- Sekula ez du zigarro bat erre.
- Ez dago federatuta.
- Donostiakoa bere lehen maratokia izan da.
- Maratoia egitea baino, gehiago kostatu zaio prestatzea.
- Sendagilearen kontrolak pasatzen ditu.
- Denetarik jaten du, berezitasun barik.
- Edari isotonikoak baino, nahiago du ura.
- Maratoia bukatzen duen lehen emakumezko arrasatearra da.
- Sauconi markako zapatilak dauzka, Donostiako maratokia egin ondoren berriak erosiko ditu, baina ez dauka marka preferentziarik.
- Bi hilabete egin ditu maratokia prestatzen, astean 5 egun eta 100 kilometro astero.
- 3 ordu eta 31 minutuko denbora egin zuen.
- Helmugara, fresko fresko iritsi zen, denbora gutxiago egiteko moduan eta pozik.
- Ez da inongo atletismo taldetakoa, horrela askatasun handiagoa dauka eta.
- Behobia - Donostia egingo du.

- Mari Pilarren adin berekoa.
- Hamahiru urterekin egin zuen lehen lasterketa, Almenen.
- Eskolan izan ezik, ez du beste kirolik egin.
- Hasiera hasieratik federatu eta serioan hartu zuen atletismoa.
- Anaia korrikalari izateak ere izan zuen beregan eraginik ere.
- Txikitan zigarroren bat erre zuen eta orain okasiotan garagardoren bat hartzen du.
- Hobetzeko federatua egon behar dela uste du.
- Gutxienez hamar maratointan hartu du parte, bi bukatu ezinda utzi ditu.
- Maratokia prestatzeko 160 kilometro egin ditu astero, uztaillean soseguz ekin bazion ere.
- Kontrol mediko zehatzak pasatzen ditu.
- Denetarik jaten badu ere, arroza gustatzen zaio asko eta maratokia aurreko hiru egunetan hidratoak besterik ez ditu jaten.
- Edateko beti ura, eta maratolian aukera dagoen bakoitzean.
- Orain Adidas markako zapatilak dauzka.
- 2 ordu eta 18 minutu behar izan zituen maratokia egiteko.
- Indarrez justu samar iritsi ei zen helmugara.
- Kros denboraldia egingo du orain.

## LABURRAK

### Eskubaloian ezin emaitza onik lortu

Eskubaloi taldeko ekipoek ez dute garaipena ezagutzen, nahiz eta gertu ikusi. Seniorek Donostian txapelketako faboritoen aurka, bi goleko diferentziagatik galdu zuten; junior taldeak, 16na berdindu zuen Zarautzen kontra, eta jubenil eta kadeteek galdu, batzuk usurbildarren aurka eta besteek beasaindarrekin. Ea asteburu honetan garaipenen bat iristen den, hiru taldek etxean jokatzen dute eta.

### Fontsi memorialela Bergaran

Bergaran Fontsi memorialela burutuko da, larunbatean. Ekintzak goizean hasiko dira, hamabi orduko futbito txapelketa eta mendiko bizikleta travesia batekin. Arratsaldean, berriz, bostetik aurrera "milla urbanoa" atletismo proba burutuko da eta hor izango dira Arrasate Atletismo Taldeko kategoria desberdinetako korrikalariak.

### Mondran lasaitasuna

Tolosatik garaipenarekin bueltatu eta gero, Mondrak lasaitasunez itxaroten du Azpeitiako Lagun Onak taldearen bisita. Teorian, arrasatearrek ez lukete arazorik izan behar beste garaipen bat eskuratu eta aurreneko postuetan jarraitzeko, azken aldean ondo jokatzen ari dira eta.

**VE ECUADOR**

**Bidaiak**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**Begoña**

**lurrindegia**

**Drogeria  
Jostailuak  
Opariak**

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73



**UXARTE**

**Kafetegia,  
gozotegia  
Gauetz irekita!!  
JO TA KE!!**

Bañez doktorea, 12  
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

**"PAL"**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99



**PENALTIAK**

● **Atletismokoek normalean larunbat goizean entrenatzen dute Iturripen, hamar t'erdietatik hamabi t'erdietara. Orain arte, ez dute eragozpenik jarri aipatutako ordutegian Iturripen Zal-dibarko Txapelketako partiduak joka zitezen, baina hemendik aurrera bakoitzak bere ordutegia gorde beharko du.**




**Joan den astean galdu eta orain atsedena**

Gogo barik bezala jokatu zuten joan den astean Arrasate Rugby taldeko jokalariek, eta hori Hernani moduko talde beterano baten aurka huts galanta da. Hernaniarrek, beste munduko ezer egin barik, baina indar eta gogo gehiago erakutsiz, 10 eta 23 irabazi ondoren, erosotasunez eraman zituzten jokoan zeuden bi puntuak. Asteburu honetan arrasatearrek atsedena izango dute, ondo etorriko zaie gainera lesionatuak errekuperatu eta hurrengo konprometuetan ahalik eta talde onena zelairatzeko.

● **Eskubaloikoek ez dute zortetik arbitroekin, seniorrak markagailuan abantaila zutela, arbitroek atezaina kanporatu zuten. Dirudenez, Luis Miguel Olivenzak nahiko ondo bete zuen atezain lana, baina ezin izan zituen atezain on batek geldituko zituen guztiak gelditu.**

◆ ◆ ◆  
**Zela da posible 20 minututan golik ez sartzea?**

Zorte txarra da hori, gazteak ere bagara eta zaharragoekin jokatzeko dugu, nerbioak... denetarik apur bat.



**IGOR ETXEBERRIARTEUN**  
Junior mailako Arrasate Eskubaloi taldeko jokalaria

**EMAITZAK**

**Pilota**

Gipuzkoako liga  
Alebinak: Elgeta 18 - Arrasate 17  
Infantilak: Elgeta 4 - Arrasate 18  
Kadeteak: Elgeta 9 - Arrasate 18  
Nagusiak: Eskuz esku: Arrasate 18 - Elgoibar 4  
Bikoteka: Arrasate 17 - Elgoibar 22  
Paletaz: Idizabal 35 - Arrasate 33  
Pala motza: Idiazabal 40 - Arrasate 23.

**Hurrengo partiduak**

Txikiak: Bergaran, igandean 11etan.  
Jubenilak: Iturripen, larunbatean 11etan.  
Palaz: Musakolan, larunbatean 11.30etan.

**Eskubaloi**

Seniorrak: Bizkor 22 - Arrasate Kirolak 20  
Juniorrak: Arrasate Kirolak 16 - Zarautz 16  
Jubenilak: Usurbil 18 - Arrasate Kirolak 6  
Kadeteak: Beasain 10 - Arrasate Kirolak 8

**Hurrengo partiduak**

Seniorrak, igandean Iturripen Bidebietaren aurka, eguerdiko 12etan.  
Juniorrak, larunbatean Iturripen La Salleren aurka, arratsaldeko 4.30etan.  
Kadeteak, igandean Iturripen Bergararen aurka, goizeko 10.30etan.

**Saskibaloi**

Gizonezko seniorrak: Getxo 78 - Arrasate 69  
Emakumezko seniorrak: Arrasate 68 - Lanos Stop 61

**Hurrengo partiduak**

Gizonezko seniorrak: Arrasate - Alvecon, Musakola, larunbata 18.00.  
Juniorrak: Arrasate - Politecnica, Musakola, igandea 12.00.  
Jubenilak: Arrasate B - Goierrri, Musakola, larunbata, 16.00.  
Gizonezko kadeteak: Arrasate A - La Salle, Musakola, larunbata, 12.00.  
Emakumezko kadeteak: Arrasate A - Juven Alza, San Viator, igandea, 12.00.

**Futbola**

3. maila: Tolosa 1 - Mondra 3  
Emakumezkoak: Dumboa 2 - Mondra 1  
Preferentea: San Andres 1 - Alegria 2  
Ohorezko liga: Mondra 3 - Trintxerpe 1  
Lehen mailako jubenilak: Irubat 3 - San Andres 1  
Bigarren mailako jubenilak: Eibartarrak 1 - Arrasate 2  
Lehen mailako kadeteak: Arrasate 2 - Bergara 2  
Bigarren mailako kadeteak: Eibar 3 - Arrasate 1  
Haurrak: Arrasate 6 - Urki 1  
Eibartarrak 2 - Arrasate 11

**Hurrengo partiduak**

3. maila: Mondra - Lagun Onak, igandea 16.00etan.  
Lehen mailako jubenilak: San Andres - San Ignacio, larunbata 16.00etan.  
Lehen mailako kadeteak: Arrasate - Lazkao, larunbata 11.30etan.  
Bigarren mailako kadeteak: Arrasate - Almen, igandea 12.00etan.  
Haurrak: Arrasate - Ilixtxa, igandea 10.00etan.

**ARRASATE PRESS**

**HARPIDETZAK**



**77 05 65**

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde, 23-2. Ezk.  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 96 90

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

**UGARTE**

**Industri hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 793412



# HIESaren lehen hamarkada

## Gaur egungo egoera (I)

Hamar urte baino gehiago pasatu dira HIES gaixotasuna agertu zenetik eta denboraldi honetan zehar infekzioari buruzko ezagupenean aurrerapausoak eman dira. Hasiera batean transmisio bideak zeintzuk ziren zehaztu zen eta beranduago GIBa (Giza Imunoeskasiaren Birusa) deskubritzea oso lagungarri izan da birusari berari eta aldi berean infekzioaren hedapenari aurre egiteko.

Nazioarteko Osasun Erakundeak (OMS) emandako datuen arabera, 1991, urtean milioi bat lagun ziren HIESak jotakoak, eta zortzitik hamar milioira giza-immunoeskasiaren birusa zutenak. HIESa duen pertsona bakoitzeko beste hamar gerta daitezke kutxatuak.

Euskal Autonomi Elkartean 1322 HIES kasu ezagutzen ditugu. Antigorpu positiboa edo eramaleak 6312 eta ustezko antigorpu positibodunak 10.000 inguru.

Bereizketa egin beharra



dago ez baita gauza berbera antigorpu positibo duna edo eramalea izatea eta HIESak jotako gaixoa izatea. Antigorpu positibo edo eramaleak, birusa gorputzean darama, baina ez du gaixotasunik eta ondorioz ez du ezer somatzen gorputzean. Hala ere, odolaren bidez edo sexu harremanen bidez transmititu egin dezake gaixotasuna.

HIESak jotakoak, ordea,

gaixoa dira eta infekzio ugari hartzen dituzte kandidiasia, tuberkulosia eta abar, immunoeskasia dela medio.

### HIESaren birusa nola transmititzen da?

HIESaren birusa era ezberdinetan transmititu daiteke:

- %80an inguru odolaren bidez, hau da, xiringa edo odolaren deribatuen bitartez.

Talde hau batez ere, drogazaleek osatuko lukete.

- %20a inguru hazi edo semen eta jario-zuku bajimailen bidez. Azken urte hauetan harreman heterosexualak dituztenen artean kontagioak gora egin du nabarmen, homosexualen artean ematen den kopurua gaituz. Orokorrean, %6ra heltzen da harreman heterosexualen bidez kutxatuak direnen kopurua baina emakumezkoen kasuan %14ra ere iristen da.

- Amak haurri ere transmititu diezaioke haurdunaldian, erditzean edo titia ematerakoan.

Arazoak arazo, adierazi beharra dago birusa ez dela transmititzen eskua eman, etxean edo eskolan elkarrekin egon, besarkatu, muxuak eman, kubierto edo ontziteria bera erabili eta abar eginagatik, ez eta eltxo edo antzekoen ziztadaren ondorioz ere.


**EUGENIO ITURRIOZ,**  
**MEDIKUA**

## KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Productos Químicos Sevillanos (PQS) enpresak, honakoa jakinerazi nahi die berogailuentzako errekin kontsumitzen duten gutzietan.

1. PQSek Espainiako zein beste herrialdeetako kalitate homologatua, abalatu, eta ikertua eskaitzen die kontsumitzaileei, gaur egun merkatuan dauden berogailu mota gutzientzako funtzionamendu egokirako.
2. PQSk KEROSOL eta PROQUISOLV KR markak eskaintzen dituzte garantiaren barruan edo bere negozioetako bat produktu horiek saltzea dela jakinarazten dio kontsumitzaileari.
3. PQSren erregaien KEROSOL eta PROQUISOLV KRren, berezitasun teknikoak behar bezala kontrolatzen dira maila handiko kalitate kontrolerako departamentu batetan.
4. Zure berogailua kerosenozkoa bada, KEROSOL eta PROQUISOLV KR dira PQSk gomenda ditzakeen erregairik onenak.

**Inguruko banatzailea: MUSAKOLA S.A Gasolindegia**



**ZENBAKI**  
Aholkularitza

**Kontabilitatea**  
**Fiskalitatea**  
**Lana**  
**Juridikoa**  
**Finantzaketa**  
**Aseguruak**

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 12 39



# AE

# ELBORO

Olarte, 1 (Taxigeltokia)  
Tfnoa: 79 18 86 ARRASATE

- KOLORETAKOTB
- HI-FI
- BIDEOA

**SONY banatzaile ofiziala**



**Zatoz eta ikusiko duzu!**

**Donostian**

**urriarren 27tik azaroaren 1era**

**SARRERAK DENDAN BANATZEN DITUGU.**

**SONYBAT  
EROSTEN BADUZU,  
BESTE SONYBAT  
OPARI!**



# Kontzesiñoko komentua

**Orain** Kontzesiño kalea dagoen tokian zegoen eta hortik datorkio kaleari bere izena. 467 urteren ondoren 1978ko urtarrilaren 6an geratu zen hutsik, lekaima frantziskotar kontzepzionistek alde egin zutenean.


Etxea bera 1511n sortu zuten Maria Bañez eta Juan Otxoa de Olariagak beaterio gisa, eta horretarako, leku horretan zegoen sagastia erosi zioten herriari. 1596ko apirilaren 6ko eskritura batek dioenez, 9 beata eta bikaria bat zeuden.

Klausura jartzea eta komentu izendatzea Fray Pedro de Abregok, Cantabriako probintziako komisarioak emandako lizentziaren bidez egin zen, 1613ko maiatzaren 21ean.

## Etxea sarritan utzi

Geroago, inbasio frantzesaren garaian, 1795ean, Arabara aldegin zuten monjek eta handik itzultzean obrak egin ei zituzten etxean. Gerra zibilaren garaian ere utzi behar izan zuten etxea, eta kainoiak jota sapaia eta aldare nagusia apurtu ziren.

1888an, abuztuaren 14ean eta arratsaldeko zortzietan historiako datuek jasotzen dutenez, trumoi hots handi baten ondoren irestak bitan zatitu zuen



Kontsesiñoko komentua 1905ean Arrasate Pasealekutik ikusita.



Kontsesiñoko komentua 1978an Kuartel ondotik ikusita.

komentuko silleriazko kanpartorrea eta kanpaitako bat apurtu egin zen. Susto itzela hartu ei zuten mondragoetarrek zarata zela eta.

1978ko otsailaren 4ean inauguratu zen Larragainen, Udalarako bidean, Santa Ana eta Eguzkitza baserrien artean eraiki zen komentu berria.

## SUTONDOAN

### ATALTZO (3)

Orduan Ataltzok, as-toaren belarriko zulotik lurrera jaitsita, batere astirik galtzeke, lapurrek bertan behera utzitako urre guztiak asto-otzaretara jaso zituen. Ahalik arinen aitarengana iritsirik, eta honi gosari eskaini eta gero, bidean gertatutakoa azaldu zion. Orduan, gosariaz guztiz ahaztuta, aita semeak pozezko negar malkotan urturik besarkatu ziren. Seneratu zirenean, amari lehen bait lehen jakineraztea erabaki zuten eta, etxeratuta, amak jakin zituenean bere semearen ausardia eta asmakizunak, Jaunari eskerrak eman eta bere semea laztandu zuen. Galdetu zien aita-semeei ia zer egin behar zen dirutza guzti harekin, hainbeste diru sendi batentzako gehiegi ere bazela eta. Orduan, Ataltzok esan zuen berak inoiz entzun zuela herriko Udala arazo astunek menperatua aurkitzen zela: bateko urak ekarri behar zirela, kale bazter edo azerak konpondu beharrean zeudela eta abar, eta hartarako dirua nondik eskuratuko ote zen. Parroko jauna ere, eliz nagusia txikiegi geldituz zihoala, txukundu eta zabaldu premina zegoela eta diru dontsu hori nondik zertuko ote zen. Bere gogoz behintzat hiru zatitan banatuko lituzkeela urre guztiak: bat udalarentzako, bestea parrokiarentzako eta hirugarrena etxerako. Gurasoek onartu zuten semearen nahia eta berehalaxe aurkeztu ziren parroko eta alkatearengana.

(Jarraituko du)

**ARRGI TAR TIBURTZO**

**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**  
77 05 65

**FELIPE MADINA**  
**ZURAK**  
Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78

**aitzgorri**  
LARRU eta LARRUKIAK  
Salvatierrako larrukiak  
60km.tako beharapenarekin.  
Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE





Bixente eta Leokadia.

**B**ateratako argazkia dugu hau, baserrian bertan egina. 50 urtez Udalako sakristau izan zen Bixente eta baita auzo alkate ere. 1951n hil zen 78 urte zituela, San Luis egunean. Familiakoek gogoratzen dutenez, egun hartan bertan, San Prudentzioko Barrena txirrindularia hil zen San Frantzisko aurrekaldean motorrak harapatuta.

**Bixente Zabarte** eta **Leokadia Beitia** andra-gizonak ditugu aste honetako erretratoan; Udalako Ozaeta baserrikoak. 1945ean

Leokadia Oletakoa zen izatez eta senarra baino urte batzuk beranduago hil zen. Bederatzi seme-alaba izan zituzten, 8 alaba eta seme bat, eta horietatik bost bizi dira gaur egun.

San Estebanetan, auzoko jaietan atera zioten gure bikoteari argazkia, abuztuaren 3an. Familia guztia biltzen zen Ozaetan fetxa horietan, hiru egunetarako joanda, 50 lagun inguru.

Bixentek txahala hiltzen zuen urtero gonbidautzat. Bixente bera, baserriko ohizko lanez gain, ikazgin ibiltzen zen Udalaitzeko haitzaren azpian. Urtero urtero burdikada haitz-egur ekartzen zuen idiekin Mondragoeko Ospital Zaharrea sutarako, debalde.

Etxe horretakoek landerea saltzen zuten asko, hamabostean Durangora feriara astoz joanda.



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
larruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**JOSTEKO**  
**OIHALAK**  
Errekabarren, 20  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 80 90

**Hilbera**  
**kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

**ARRASATE**  
PRESS  
**HARPIDETZAK**



**77 05 65**



**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- **Etxebizitza salgai San Andresen.** Foruen Plaza, 3.-5 ezk. Tfnoak: 79 47 28 eta (945) 44 51 99.
- **Ikasle batek logela behar du Arrasaten.** Dei egin 28 75 70 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Zigarrolan.** Tfnoa: 79 79 94
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73
- **Etxebizitza berria salgai Zarugalden.** Tfnoa: (945) 25 89 03.
- **Eskoriatzan etxebizitza batean logela bat alokatzen da.** Dei egin asteburutan 64 34 14 tfnora.
- **Pisua osatzeko pertsona bat behar da Arrasaten,** dei egin goizez 79 11 19 tfnora.

**Lana**

- **OHOk klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 38 58.
- **Neska euskalduna behar da Gasteizen** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: (945) 24 48 52.
- **OHOk klase partikularrak ematen dira** eta euskarako maila guztiak. Tfnoa: 77 04 98. Marije.

- **Edozein lan mota egingo nuke.** Dei egin arratsaldetan 79 50 30 tfnora. Jose Migel.
- **Neska prest umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Dei egin 10etatik 3etara. Tfnoa: 76 05 63.
- **Esperientziadun sukaldari-laguntzailea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 87 27.
- **Matematikako klase partikularrak behar dira** larunbat arratsaldetan. Dei egin 79 93 52 tfnora gauetan eta galdetu Leiregatik.
- **Italianoko irakasle partikularra behar da.** Tfnoa: 79 21 72. Blanka.
- **Andrea prest umeak edo pertsona nagusiak** zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 76 33 48.
- **Ingeleseko klase partikularrak behar dira.** Tfnoa: 79 72 92.
- **Umeak zainduko nituzke.** Dei egin 79 60 16 tfnora.
- **OHOk klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 60 16.
- **Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak** zaintzeko. Kotxea beharrezkoa da. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 57 tfnora.
- **Furgonetadun mutila lan egiteko gertu.** Tfnoa: 77 04 87. Arratsaldetan.
- **Emakume euskalduna orduka etxeko lanak** egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.

**Salerosketak**

- **Logela berri bat dut salgai.** Tfnoa: 79 10 51 (Goizetan edo gauetan).
- **Inpresora erosi nahi nuke nire ordenadorearentzat.** Dei egin 77 12 28 tfnora. Jabi.
- **Bideo grabatzailea, kamara eta monitorea Beta** sisteman interesatzen bazaizkizu dei egin. Tfnoa: 77 12 28. Jabi.
- **Spectrum ordenadorea eta 19 joku salgai** 24.000 PTAan. tfnoa: 79 93 91.
- **Fibro Kamin estufa japoniarra sagai.** Tfnoa: 79 15 54.
- **Irrati-kaseta salgai.** Neurriak 20 X 55 zm. 60 w, zinta batentzat, 7 kanal. 7.000 PTA. Dei egin 79 91 50. Jon.

**Harremanak**

- **Joseba Lizaranzuren partez** bihotz bihotzez zorianak Jaime Lizaranzuri.
- **Makatzeko Pedro R-ri** zorianakbere seme-alabaren partez.

**Aste Gazte**

**Autobusak**

• Arrasatetik Bilboko fakultateetara joan eta etortzeko autobusak arratsaldez ere badabilta. Ordu 1.30etan hemendik irtenda.

**Euskara ikastaroak**

• Dialektologia ikastaroa, Bergarako UNEDen. Azarotik maiatzera, ostegunetan. Matrikula epea: azaroaren 7ra arte. Tasak: 10.000 PTA.

**Lehiaketak**

• Euskal Arteko V. Biurtekoa. Modalitateak: Pintura eta Eskultura. Gai eta teknika libreak. 300.000 PTAko bi sari. Epea: azaroak 11.

• "Kirola" II. Argazki Lehiaketa, Bergarako kirol zerbitzuak antolatuta. Zuri-beltzean edo koloretan, modalitate bakoitzeko hiru sari. Epea: azaroak 18.

• Eibarko "Club Deportivo" 1992 Argazki Rallya. Urriaren 25ean. Zuribel-

tzean edo diapositibetan. Gaia: egunean bertan azalduko da. Lanak aurkezteko epea: azaroak 20.

• Komiki Erakustaldi-Lehiaketa. Gaia: gazteon aisialdia. Oinarri foiletoetan ideia batzuk eskaintzen dira. Epea azaroak 30.

**Informazio sarea**

• "Symbiosis" izeneko informazio sarea eratu da, Europa mailako informazioa nahiz aholkularitza juridikoa eskaintzen duena. Arrasateko Udala sare honen barruan dago.

**"Kontzientzia objektorea naiz eta klasean ikasleak soldadutza ez egitera animatzen ditut. Kasu gehienetan kartzelen kontrakoa izanik ere, askoz gehiago errespetatzen ditut intsumisoak".**

**ANTONIO BERISTAIN  
Kriminologiaren  
Euskal Institutoko  
Zuzendaria**

**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**



Z E R N A H I A G O ?

**Pilar Bastida**



- **Bizitzako urterik onena?** Ez dakit, denak antzerakoak.
- **Soladuzkaren alde ala kontra?** Kontra, lehen euskaldunak ez diren joaten eta orain ere ez joatea hobeto izango dela uste dut.
- **Irakurtzea gustatzen?** Bai, baina ez dut larregi irakurtzen.
- **Hobbyak?** Pintatzea, baina ez dut egiten.
- **Pasiatzea gustatzen?** Bueno, bada, bai.
- **Baduzu gidatzeko karnetik?** Kadukatuta.
- **Animalia bat?** Txakurra, baina kale etxean ez, baserrian.
- **Feminista zara?** Nik baietz uste dut. Oraingo batzuekin ez nago de akuerdo baina emakumearen aldekoa naiz.
- **Lore bat?** Denak gustatzen zaizkit.
- **Ze musika mota gustatzen zaizu?** Koralak.
- **Zoriontsu zara?** Momentu batzuetan bai.
- **Gaztea zineneko gauzak gogoratzen dituzu?** Batzuekin behintzat akordatzen naiz.
- **Zeri diozu beldur handia?** Ez dakit... kutxillo batekin hiltzeari.
- **Zure aitonaren izena gogoratzen duzu?** Bai, biak Jose Maria ziren eta.
- **Zer ikasiko zenuke gustora?** Arkeologia, baina irakurrita konformatu behar.
- **Perfume bat?** Erregalatzen didatena.
- **Egin duzun inbertsiorik onena?** Uste dut denak txarrak izan direla...
- **Kolore bat?** Azula.
- **Negar egin duzun azken aldia?** Atzo edo...
- **Memoria ona duzu?** On ona ez.
- **Dantzan badakizu?** Sekula ez dut ganoraz ikasi.
- **Arrasateri falta zaion zerbait?** Pasioleku eder batzuk.

**APARKAMENTUAK URRI**

- 1  
Kotxearekin errekautara azkar eiteko asmotan baina uztia galerazita dago hainbeste zokotan. Begiak argi ibili behar lekua bilatzekotan astoarekin jungo bagina hobe genuke askotan.
  
- 2  
Aparatzeko lekurik ezak baditu hainbeste etsai oker utzitzen baldi badugu ertza zitalen bat han zai multa ordaindu nahi ez duenik ezin da ibili lasai lege zuzena behar da baina aparkalekua're bai.
  
- 3  
Gaur agintari zeradenari apal eskatzen dizut behin partidutako poziñak utzi eta bildu elkarrekin lekuik onena nun dagon neurtzen saiatu ondorean fin beharrezkoak dirade eta aparkaleku batzuk ein.

AGARRE

**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

**URRATS**

**AHOLKULARITZA**

GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

**ARRASATE PRESS**

**HARPIDETZAK**



**77 05 65**



# Txotxe Urrutia

## Kaleko giroa antzerkian

Txotxe, Ekekei antzerki taldeko partaidea da, Arrasateko partaide bakarra gainera. Bihar larunbata "Ni naiz Kapitan Piloto" obra antzeztuko dute Herriko Plazan.

— Noiz sortu zen Ekekei taldea?

— Orain dela lau urte sortu zen. Elgoibarko talde bat, Taupada konkretuki, banatu egin zen eta handik sortu zen Ekekei talde berria. Bi tendentziaren arteko eztabaidaren ondorioz, bi taldeek bide desberdinak jarraitu zituzten. Gure obrak, gazte eta helduei daude zuzenduta eta Taupadaok, aldiz, umeentzat. Bederatzi partaide gara guztira eta denak Elgoibarkoak dira, ni ezik.

— Ze motatako obrak antzezten dituzue?

— Hasieran aurreikusitako tendentziaren arabera, gizarteko gauza desberdinak eta eguneroko arazoak aztertzea da helburua. Eta hori da gaur egun jarraitzen duguna. Gauza horiek agertzeko, ginola ere erabiltzen dugu askotan. Arrasaten antzeztuko duguna "Capitan piloto" izango da, aurkikuntzaren kontrako obra.

— Guztia buruz ikasi beharko da, ezta?

— Bai, noski. Hori



ezinbestekoa da. Baina guretzat ez da oso zaila, eszenatokira irten baino lehen, mila aldiz errepikatzen dira gauzak. Esan beharrekoa automatikoki irteten da eta horrek beharbada arriskua ere badu, askotan sinkronismoa galtzen da eta. Eta bost-sei emanaldiren ondoren, izan beharko lukeen grazia galdu egiten du, zer esaten dugun pentsatu ere ez dugu egiten.

— Zenbat herritan antzeztu dituzue zuen obrak?

— Askotan, baliteke 60 edo 70etan. Gure arazo edo muga handiena euskara da. Obra guztiak euskaraz dira eta segun ze herritan antzezten dugun, jende gehiago edo gutxiago etortzen da. Adibidez, Gipuzkoan harrera ona izaten

dugu baina muga hori pasa ezker, oso sorpresa handiak eta txarrak izan ditugu, Nafarroan eta Araban batez ere.

— Zenbat aldiz aurkeztu duzue obra bakoitza?

— Segun zenbat herritatik deitzen diguten. Ez dugu mugarik jartzen. Gainera, montai bakoitzak bere bizitza izaten du talde barruan, asperten garenean, beste bat aukeratu eta horrekin hasten gara. Gaur egun montai bakoitza errentabilizatzeko gutxienez bi edo hiru urtetan obra bera antzezten dugu.

— Dekoratuak eta jantziek zelako garrantzia dute zuentzat?

— Beno talde bakoitzak gauza desberdinak baloratzen ditu. Batzuk izaera beltz batekin oso gauza onak egiten dituzte. Guk bai jantzia bai dekoratua bai makilaia hartzen dugu kontutan, gustatzen zaigulako eta guretzat baduelako bere garrantzi berezia.

— Zelako harrera espero duzue bihar?

— Arrasaten beste hiru alditan egon gara. Eguraldiak laguntzen badigu, jendea hurbilduko dela uste dut. Gainera ordua ere ona da eta Herriko Plazan izanik, bertatik pasatzen den jendea ere hurbilduko dela uste dut.

## LABURRAK

### ◆ Bertso-paper lehiaketa

Matxintxu AEK Euskaltegiak Kabi Goitiaren, lehen bertso paper lehiaketa antolatu du. Partehartzaileek aurkeztutako lanak bi multzotan banatuko dira, gazteen eta helduen saila bereiztuz. Abenduaren 21a baino lehen bidali beharko dira lanak, Matxintxu AEK Euskaltegiara, Ramon y Cajal 8 Behea, 48014 Deustua (Bilbo) helbidera. Sariak 50.000, 40.000, 30.000koak izango dira helduen mailan eta 20.000, 12.000 eta 6.000 pezetakoak gazteen mailan.

### ◆ Komiki erakusketa egiteko lehiaketa

Arrasateko Gazte taldeek, Udal Gazteria Batzordeak eta Drogomenpekotasunen aurkako Batzordeak, gero erakusketa egiteko asmoz, komiki lehiaketa bat antolatu dute. Lehiaketaren gaia, errutina eta droga-kontsumoa litzateke.

Parte hartzaileek, azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dituzte komikiak, Drogomenpekotasunen aurkako zerbitzuan edo Gazte Zerbitzuan. Komiki bakoitza itxitako kartazal batean aurkeztuko da, beste kartazal batean egilearen datuak. Testuak, euskaraz zein erdaraz idatziko dira eta irabazleak 60.000 PTako balioa duten kultur, kirol edo aisialdi tresnak eramango ditu; gainontzeko partehartzaileek ere, saria izango dute. Komiki irabazlea Udalak hartuko du drogomenpekotasunen prebentzioan erabiltzeko.

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral

Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

**IZAGIRRE**

barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE  
Tfnoa: 79 59 86

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



## ASTRONOMIA

### GORUNTZA BEGIRA

Everest mendia igo berri duten mendizale euskaldunak, ortzetik gu baino gertuago egon dira, handik gauza guztiak beste ikuspuntu batetik ikusiz. Proporzioak, tamainuak, horizontearen bazterrak, dena, txikiagoa balitz bezala agertzen da. Albert Einstein zientzilari famatuak zioenez, planeta batetan eserita gure lurrari begiratu bagenio, argi eta garbi ikusiko genuke zein txikiak diren gure eguneroko gorabeherak, eta ziur aski, gerrak eta istilu guztiak behin betirako bukatuko lirarteke.

Ezin dugu planetarik bisitatu, ez eta Everesteraino igo, baina ARRASATE PRESSEN sail honetatik, uhertsoaren gauza harrigarri eta ezezagun batzu (ezezagunak irakurle gehienentzat) argitzen buru belarri saiatu behar dugu.

Ez larritu, zerbait astu-negia bururatzen bazait, hortarako dago erredakzio taldea dena galbahetako prest.

ERNEST BORN

# “Sorgin Punki” opera ere Amaia antzokiaren zain

**Amaia** antzokiaren obrak gelditu eta gero, San Frantzisko Xabier Ikastolaren 25. urteurreneko ospakizunen amaiera-ekintza, 26. urteurrenean egin beharko da. Izan ere, ikastolako arduradunek ospakizun ekitaldi guztien amaiera bezala, “Sorgin Punki” izeneko opera antzetzeko asmoa zuten azaroan, Amaia antzokian. Antzokia berrizteko obrak geldiarazi zituztela jakin zenean, obra aurrera eramaten ari zirenak bildu eta Amaia antzokia ireki arte itxarotea pentsatu zuten, “eztabaida txiki bat izan genuen -zioen Gurutze Uribarren operaren arduradunetarikoa batek- eta irtenbide onena, Amaia antzokia zabaldu arte itxarotea zela erabaki genuen, batez ere bi arrazoiengatik: alde batetik, akustika aldetik berez delako Amaia antzokia bezalakorik ez dela izango Arrasaten, eta bestetik ekonomikoki lana eskenategi batetik kanpora ateratzea garestiegia zelako”.

### Umeek umeentzat egindako opera

Duela sei urte Gorka Sierrak Bilboko Sociedad Coral-eko zuzendariak idatzitako opera da “Sorgin Punki”. Orain arte, bi aldiz antzetzu izan da, bata Madri-



len eta bestea Bilboko Arriaga antzokian, biak erdaraz.

Udaberrirako testua euskarara itzuli zen, letra eta musikaltasuna kontuan hartuta guztia berregin zen eta maiatzarako San Frantzisko Xabier Ikastolako umeak ikasita zeukaten, udara ostean antzetzu asmoz. Opera umeentzat egindakoa bada eta umeak protagonista nagusi badira ere, ez dira antzezle bakarrak eta Goikobaluko lau partaide eta beste lau kanta-

rik, ikasle-ohiak guztiak, parte hartzen dute Ikastolako 60 umeekin batera. Horretaz gain, aipagarria da Arrasate Musikaleko orkestaren parte hartzea.

Entsaiu orokorren antzerakorik ezin izango dute Amaia antzokia berriz ireki arte egin, baina “Sorgin Punki” Operako arduradunek ziotenez, noiz behinkako entsaiuak egin beharko dituzte, “ikasitakoa ez ahazteko helburuarekin”.

Araba Etor., 4  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 01 32

**ONIZKE**  
Koop. E.

Olakua, 14  
OÑATI  
Tfnoa: 71 60 00

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Maila guztiak. Umeak, gazteak, helduak. Goizez eta arratsaldez.

**ZATOZ GURE BULEGOETARA!**

(Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara)

**PEUGEOT - TALBOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE




• AIPUA •

*"Dakitenaz bakarrik hitzegingo balute, gebienek ez lukete ia hitzegingo"*


Arturo Graf

• JEROGLIFIKOA •



Nolakoa duzu ama?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Eskubete. 7. Izen berdineko errebala eta kalea. 8. Ondorio-rik gabe. 11. Igerileku. 12. Eta. 13. Zer-bait erretzean sortzen da. 14. Gaztigatze. 18. Bultzatu.

**Bertikalak** 1. Ondorio. 2. Merkantzia. 3. Kafetondoaren hazia. 4. Adikor. 5. Diru, karneta eta abar eramateko. 6. Nahiko. 9. Atzizki adberbio sortzailea. 10. Garbitu. 15. Germanioa. 16. *Togoko* kontsonanteak. 17. Superlatiboa adierazteko atzizkia.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Besteak baino gehiago zarelakoan? Ja, Ja!!

**Taurus** Hego haizea dator, kotuz txapela erabiltzeko ohitura baduzu!

**Gemini** Ez haserretu zure ondokoekin, agian arrazoia beraiek izango dute eta.

**Cancer** Azterketetan ez duzu zorte handirik izango, baina, tira.

**Leo** Gogoratu 'X'-a zenbaki erromanikoetan dela 10, ez zinean.

**Virgo** Oraingoan ere gezurretan? Zeure buruari harrika!

**Libra** Jokaera aldatu beharko duzu, bestela...

**Scorpio** Kontuz kotxearekin, ez zara zu bidean bakarra.

**Sagitaris** Asto osoa izateko bi belarri handi bakarrik falta zaizkizu.

**Capricorn** Ez zaitetz haize-zurutzetan egon.

**Aquarius** Berri onak bidean eta zu oraindik negarez? Ez zara gutxirekin konformatzen ba!

**Piscis** Zauden moduan egonda ez zaitetz elkartu Tauru batekin.

# LORAMENDI KIROLAK

• Reebok

• Saucony


• Adidas

• Rombo

• Joma

• Ellesse

Zure gustoko zapatila guztiak  
hemen dauzkagu!



Entrenamendua • Lehiaketa • Aisialdia

• Nike

• L.A. Gear

• Avia

• Asics


• Rox

• Converse

Maiatzaren 1a Plaza ARRASATE Tfnoa: 79 97 24



· JOSE I. ZUAZUBISKAR "MAXUA"REN GOMENDIOA ·




Etxeko jatorduetaz arduratzeaz gain, tartagintza du Joxe Inaziok sukaldeko lan gustokoa, bera ere oso gozozalea delako agian. Hojal-drezkoak egiten ditu, gaztaiaz, sagarraz edo melokotoiaz beteak, eta etxerako ere detaile moduan egin arren, kuadrilarako egiten ditu astero. Everestetik bueltan "Zuatzu"ren tartak aurkitu zituzten zain Inurrategitarrek ere. "Sekretua? Egitea, eginaz erraztasuna hartzen da eta. Hasieran osagaiak pisatzea ere inportantea da".

· PROGRAMAZIOA ·



- 24 Larunbata**
  - 4. Bai horixe! eta Follow me.
  - 6.30 Pareak jokuan.
  - 7. ATBketan.
- 25 Igandea**
  - 9.10 Mondragol.
- 26 Astelehena**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Bai horixe! Follow me.
  - 6.30 Dokumentala.
  - 8.8.30, 9 Berriak.
  - 9.30 Mondra Sport.
  - 10 Asteko zinea: Purpura kolorea.
- 27 Asteartea**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Bai horixe! Follow me
  - 6.30 Dokumentala
  - 8.8.30, 9 Berriak.
  - 9.30 Larrugorritan: Klasean kopiatzea.
  - 10 Asteko zinea: Purpura kolorea.
- 28 Asteazkena**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Bai horixe! Follow me
  - 6.30 Dokumentala
  - 8.8.30, 9 Berriak.
  - 9.30 Pareak jokuan.
  - 10 Asteko zinea: Purpura kolorea.
- 29 Osteguna**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Bai horixe! Follow me
  - 6.30 Dokumentala
  - 8.8.30, 9 Berriak.
  - 9.30 ATBketan.
  - 10 Asteko zinea: Purpura kolorea.
- 30 Ostirala**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Bai horixe! Follow me
  - 6.30 Dokumentala
  - 8.8.30, 9 Berriak.
  - 9.30 Monterrock.
  - 10 Asteko zinea: Purpura kolorea.

· KOMIKIA ·



· SOLUZIOAK ·

Gaztea.  
**JEROGIFIKOA**  
 En.  
 9. Ro. 10. Ikuzi. 15. Ge. 16. Tg. 17.  
 Kafe. 4. Ulerkor. 5. Kartera. 6. Aski.  
**Bertikalak** 1. Emaitza. 2. Salga. 3.  
 Ta. 13. Ke. 14. Zigorze. 18. Eragin.  
 Maala. 8. Alferrik. 11. Igetoki. 12.  
**Horizontalak** 1. Eskukada. 7.  
**GURUTZEGRAMA**

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

**NAROKI**

Urrezko bitxiak

**NAROKI**

Opariak, Jostailuak, Liburuak,

Paperdegia

Erdiko kale, 23 ARRASATE

Tfnoa: 79 20 47

**IBARRA**

Garajea S.A.



EBRO  
NISSAN

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**




**77 05 65**





OPEL ASTRA BERRIA



Puntuaitzeko Injekziodun Astra motore-serie berria, potentzia handiagoa cm<sup>3</sup>-ko.

# POTENTZIA ADIMENTSUA

*Imajinatu! Opel Kontzesionariak Opel Astra berriaren potentzia egiaztatzen gombidatzen zaitu.*

*Beti zurea, Opel Astra.*



MCCANN

Imajinatu Astra motore berrien posibilitateak. Imajinatu 82tik 150 CV-erainoko potentzia adimentsua. Imajinatu, zeure ekonomian pentsatzen duen potentzia, eta eraginkorra, azken-azkeneko. Puntuaitzeko Injekzio Sekuentziala duena. Ekologiaren adiskide, 3 bideko Katalisatzailea integratuta. Imajinatu, potentzia adimenarekin bat eginda. Opel potentzia duzu.

Gidatzeko atsegina dagoeneko ez da zilindrada-kontua, adimen-kontua baizik. Egiaztatu zeure Opel Kontzesionari Ofizialean. Gombidatua zaude.

**OPEL**

**BADAZU OPEL ASTRA-RIK 1.547.000 PZTA.\***

OPEL ASTRA, ALEMANIAKO INJINERUTZA ETORKIZUNERAKO

\* Fabrikatzeileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearretarako), garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari eta finantziario eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.

## TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako

kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

## TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.